

Txuri Ta Gorri 5



TIA GORRI 2010

Ixuri Ta Gorri 5

EUSKERAZAINTZA

Legezko Gordailua: BI-932-88

Eratzaillea: "Zipitria'tar Elbire" Mintegia, Hernani'ko
URUMEA IKASTOLA

Argitaldaria: EDFLF
Getari, 21 - DONOSTI

Legezko jabea: EUSKERAZAFNTZA

ISBN: 84-7394-009-1

Irudiak: Goiri'tar Pia

Argazki-idazketa: IPAR S.A.
Egia, 12 - DONOSTI

Irarkola: I. BOAN, S.A.
Plar. de Costa, 12-14
48010-BILBAO

MARGO-NAASTE: SCAN 2.000 S.A.

AURKIBIDEA

Aurkezpena	5
Zatozkida goi-arnas	9
Aramaio errian ere igesi	10
Amayur gaztelu baltza	13
Bildumak	16
Azkeneko zugaitza	18
Esaera zaarrak	15
Itsasontzi sorgindua	20
Goiz-Argi	22
Neskatxa ontziratua	23
Erri-miña	24
Shwe Dagon	26
Matalaz	29
Txomin-ipurdi	31
Esaera zaarrak	34
Kattalin	35
Xirri-xerri	36
Alfanjuiren amona	37
Kun-kun	39
Nork esan?	40
Eberest gaillurrera igoera	42
Egunsentiko pozak	46
Akropolis	47
Berretetxen kantoria	51
Marrazki bizidunak	52

Axelko eiztari	54
Iruñako ferietan	56
Oillasko-ezurrak	57
Urta labiru	58
Beleak-akerrak	59
Printze Txikia	60
Morroiz azkarra	65
Ana Josepa	72
Esaera zaarrak	74
Don Kijote	75
Maiteak erran zerautan	80
Txitxen Itza	81
Otsokoaren gosea	84
Eberesteko jeitxiera	87
Iturri agortua	92
Gizon bikaiñak	95
Bilintx	101
Eskailera	103
Abu Simbel	105
Olimpiadak	108
Arraunketa	109
Bultzi-leiotik	112
Agurra	114

AURKEZPENA

Liburu au ere aurrekoen ari berari jarraituz eratua da: euskal-sena, ikasle ta irakurleentzako erraztasuna ta argitasuna oiñarri ta ardatz ditualarik egiña.

Izan ere, oiñarri oien gaiñean eta ezitzailleen laguntzaz girotuta sortuko bai-zaio egokienik edozein gaztetxori irakurtzeko zaletasuna. Eta ain bearrezkoa da zaletasun ori! Bestela, gizadiak mendetik mendera pillatu dituan ezagupenen altxorra, ez lezake iñork ongi ezagutu, atsegiñez ao-gozatu ta sakonki bereganatu, irakurri gabe, asko ta asko irakurri gabe.

Irakurleak aziagotzen doazenez, irakurgaiak ere sakonagoak eta gai zabalagoak ikutzen dituztenak aukeratu ditugu. Amar urte inguruko nexka-mutikoei atsegin zaizkien gai jakingarriak bereziki. Jakin-miña pizteko ta asetzeko lagungarri gertatuko zaizkienak, alegia.

Andik eta emendik artuak dira batzuk, eta orduan aipaturik dago bakoitza norrena dan. Asmatuak dira beste batzuk, liburu batean eta geiagotan ikasitako z gaiñera. Eta beti ere adin ontako nexka-mutikoen erraztasunaren serbitzuan egokitze-lan eta ikutuak eginda.

Berriz ere gogorazi nai genuke emen. Zipitria'tar Elbire bide-urratzaille aundiaren irakasbideak jarraituz, eta Lekuona'tar Manuel idazle-maisuaren aolkuaz gogoan erabilliz, burutu dugula irakurgai aukeratuen bilduma. Zenbat-eta obeki asmatu dugun, ainbat-eta obe izango da nexka-mutiko gaztetxoentzat.



Urumea Ikastolako «Zipitria'tar Elbire Mintegia» lan-taldearen ametsa, egiña-lean asmatzea izan da.

Eta lan-talde beraren orde z eta izenean.

GAZTAÑAGA'tar JESUS'ek







PiA Goiri Zuazo



ZATOKIDA, GOI-ARNAS
EIZU NEREKIN LAN,
ERRI BATEN ARNASA
MAMITU DEZADAN.
GEROAK ESAN BEZA:
«ERRI BAT IZAN ZAN»;
EDO-TA ATS EMAIOGUN
ONTAN IRAUN DEZAN.

(ORIXE)

ARAMAIO ERRIAN ERE IGESI

Aramaio erriko etxean itxi zuten. Santa Kruz an zegoala zabaldu zan be-realaxe, eta an bildu ziran, zeuden etsai guziak mordoskatan ibiltzeko. Ain zuzen ere, noren mendean egon Santa Kruz eta Ernialden isekatua utzi zuan batalloiaren beraren mendean. Oraingoan obeto kontu artuko zioten, eta iges egin bear ba zuan, leen baiño ernego ibilli bearko zuan.

Bi egunez egon zan Aramaion aien mendean, Abuztuaren amargarrene-tik amabigarrenera, gauetik illunabarrera. Bitarte ontan ez zioten pakean uzten alditxo bat ere, etxetik plazaren erdira eramanez. Tiratzailleak jomugatzat artu zuten, eta esan eta esan ari ziran, bere mutil mordoxka non zan aitor-tzen ez ba zuan, bost, lau, iru minutuko bizia zeukala. Atxitu zutenetik San-ta Kruzek artu zuan seta, ixilik eta ixilik egotea. Ainbeste joan etorriren on-doren, esan zien garbi, egundaiño ez zuala aitortuko: nai zutena egin zezatela.

Joan-etorri aietan begiak irauliko zituan noski, bidebazarren bat aurki-tzen ote zuan, iges egiteko. Baiña ez zegoan iges egiterik. Ala ere ez zuan etsitzen, eta iges egin ote zezaken, eta nola, ari zan bere buruarekin.



Goiko bizitza batean zeukaten itxita; begiratzaillea an zeukan gau eta egun; iñorekin ezin itzegin zezaken. Ala ere adiskide batzuk keiñuka ari zitzaizkion nola iges egin. Zer egingo eta, gaixo zegoalakoa egin zuan bigarren gauean. Ozpiñetan bustitako zatar batzuketan lotu zioten bekokia, ta, norik esan, aien bitartez iges egingo zuala? Baiña balkoira joan ere egin bear zuan, eta andik, lokarri aiek eta txamarra lotu, zintzilika iges egiteko. Soldadu begiratzaillea an zegoan gelaren erdi erdian, eta ez zeukan iñora mugitzerik. Alako batean, ittokarrean zegoala, eta aize preskoa artu bear zuala esan zion, ea balkoi ondoan etziten utziko zion, eta baietz. Urbildu zan balkoira eta an ezarri zan. Antxe, itzalka, itzalka, begiratzaillea oartzen ez zan moduan, mugimendurik atera gabe bezela, lotu zion txamarra burniari zatar lokarri aien bidez, eta gero oera, leen zegoan tokira itzuli zan.

Gauerdian edo esan zion bere buruari «iñoiz bada oraintxe» ta bearra egitera zijoalakoa, oiñetakoak jantzi zituan, eta bere artan goraka antzean asi zan abokorroka zeriola. Goragalea kentzeko bezela, zabaldu zuan sapailloa, eta oraindik ere goraka ari zan, eskuak sabelean zituala. Begiratzailleari eskatu zion baimena, andik beera txixa egiteko. Ez zion eman nai, bildur bait zan, noizean bein ikustera zetorren kapitaiñak ala arrapatuko ote zuan, eta Koronela ere begiz-begi bizi bait zan. Santa Kruzek orduan bere begiratzailleari ala esan zion: «Kapitaiña etortzen bada, eskupetaren ipurdiz jo nazazu, bitartean begira zazu ate aldera» Ala egin zuan, kapitaiña albo gelan lagunekin dantzan zebillen bitartean. Baiña nora aldegin? Ez bait zekian Aramaioko berri. Araba aldetik leen ibillia zan gidatzaille batekin, baiña au gaitzak artu zion eta bakarrik ibilli bearra. Bein sartu zan erri artara ta zegoan etxe artara. Andik lenengoz aldegin zuanean, kale luze batean barrena joana, go-goan zeukan. Baliatuko ote zion?

Alako batean rauu! balkoitik beera. Begiratzaillea oartu zan eta burua atera zuan, apaiza oraindik zintzilik zegoala. Baiña, berandu! Apaiza atarian zegoan eta zutik gelditu, lokarriari eta txamarrari esker. Asi zan laisterka, ez adiskideei, ez etsaiei kasorik egin gabe, eta erritik atera arte ez zan gelditu. Atzetik zetoziola sumatu zuanean, ango ibaira sartu zan, eta an luze-luze etzin eta arrastaka joan zan, zume batzuk zeuden tokira. Baiña au lana!, urak ez zuan estaltzen gerriraiño baizik eta bildur zan, alkandora zuria ikusiko ote zuten.

Erantzi egin zuan bada, eta sasi tartean sartu. Billa zebiltzanak ara urbiltzen ziranean, leporaiño uretan sartzen zan, eta aurpegiz sasira begira jartzten. Gau artan eta urrengo eguerdira arte ibilli ziran inguru aietan, eta ez zuten arrapatu. Ikusten zituan berak barrendik, lastargiekin zebiltzala, baita egun argiz ere. Gaiñera usmo oneko eize-zakurrekin zebiltzan aren billa, baiña zegoan lekutik laisterregi pasa ziran eta ez zioten usairik artu. Aspeé Arrazolan bazan meatz zulo bat, eta an egin zuten leenengo geldi aldia, an izkutatu zalakoan.



Santa Kruz gizagajoa an zegoan ibaian. Ez zioten arkakusoeke neke aundirik emango. Errosarioa errezatu zuan eta Ama Birjiñari ez dakit zenbat eskeintza egin zizkion: Misiotara joango zala siñesgabeetara, andik onik ateratzen ba zuan. Gizagajoa, oso auldu omen zan. Ez da arritzekoa.

Illaren amairugarrenean eguerdi aldera liberalek utzi zuten Aramaio eta apaiza an gelditu zan ibaian. An egon zan gaura arte. Otzak gogortu zuan, eta noiz baiño noiz an geldituko ote zan ari zan bere buruarekin.

Orrela zegoala,... ara gizon bat:

— Zatoz onera, —esan zion— Santa Kruz naiz, atera nazazu bizirik.

Gure gizonaren poza!


— Zaude or geldirik —esan zion— atera nai ba dezu, galdu zera, zelatari asko bait dabilta, eta zillarra eskeintzen diote atxitzen zaituanari. Nik mundu guztian dan urrearengatik ere ez zaitut salduko.

Antxe egon bearra izan zuan illundu arte. Bitartean gizon aramioarrak arraultza egosiak ekarri zizkion.

Santa Kruzen mutillak non ziran? Egun artan bertan, Arantzazuko arkaitzetan, artzai batek eman zien apaizaren berri: iges egin zuala orain ere. — Bai ote? Ama Birjiñak atera du -eta bere artan errosarioa esaten ari ziran. Aramaioar gizagajoak, illuntzean, konturik andienarekin Anbotora eraman zuan Santa Kruz, ango baserri batera.

Santa Kruzek berak, ikus zer dion 1921garrengo apirillean: «Oraindik go-goan daukat. An artu nuan zerbait: urdai errea eman zidaten. Baserritar aiek, batzuk begira zeuden, beste batzuk neri oiñak garbitzen eta legortzen ari ziran. Emakumea urdaia erretzen, eta agure zaarra aingeruaren gisa, neri begira. Andik mendiko aitzulo batera eraman ninduten, Elorrio alderago. Ara etortzen zan artzai antzean mutiko bat txilibitua joaz, neri jatekoa ekartzera. Aitzulo orretan egon mintzan iru egunez, eta andik Frantzira jo nuan: 24 ordutan 20 legua bide, iñon egonik egin gabe».

SANTA KRUZ APAIZA
ORIXE



MAYUR GAZTELU BALTZA


I

Amayur gaztelu baltz ori
—berreun gudari oso sumin
zaintzen zaituben zaldun onak
Naparra-aldez egin dabe zin.

Izkillu gorriz zenbat gazte
bidur-bako menditar lerdan.
Eta orreik, Yatsu jaun orreik,
Jabier'eko zaldun guren.

Ikurrin bat —kate ta lili—
torre goitijan zabal dago.
Bera salduko daun semerik
mendi onetan ezta jayo.

Amayur'ko ate-zain orrek
zidar-turutaz oyu egik.
Baztan ibarran zenbat etsai,
arrotz-gabe eztago mendirik!





II

Esiturik Amayur dauko
Miranda'ko konde Españarrak.
Orreik bai burnizko janzkijak,
ta urrezko ezpata-sagarrak!

Berekin dator, bai berekin,
Lerin'go eto orren semia.
Txakur txarrak jango al abe,
erri-bako zaldun dongia.

Goiko aldetik asten dira,
asten dira subaga-otsez.
Orma-kontretan zenbat zurgu,
eta gezi zorrotzak airez!

Baña torreon zabal dabil
ikurrin bat —kate ta liii—.
Nok zapaldu ete dagikez
berreun gudari orok zoli?

III

Amayur'ko gaztelu baltza
—iausi yatzuz torre goitijak—.
Baña, arrotza, etzadi geldu,
napar-seme dira guztijak.

Arresi gorri, zubi ausi,
—zein gitxi diran zaldun orreik
Erijo, samurño zakije
aberri-min baitabiltz eureik.

Miranda'ko konde gaizto orrek
jo egixuz zidar-turutak.
Ikurrin bat —kate ta lili-
eztau laztanduko axeak.

Berreun gudari oso sumin
gaztelu-pian clagoz illik.
Ordutik ona —zenbat laño—,
Naparruan ezta aberririk.

Goizeko laiño gorri, gaueko iturri.

Urruneko eltzea urrez, gerturatu orduko lurrez.

Ogi gogorrari agin zorrotza.



BILDUMAK

Inglaterran 1840an, atera zuten lenen posta seillua eta 1841ean Times ize-neko egunkarian iragarki-saillean, erabillitako seilluak eskatzen zituzten. Onek, seilluetarako griña ere seilluekin batera jaio zala adierazten digu.

Filatelia ez da denbora-pasa bat soilik, baita irabazpiderako salerosketa benetakoa ere, egiazko aktibitate komertziala.

Seilluetarako zaletasuna duanak badaki mundu osoan izaten dirala onelako erakusketak. Noizbait seilluak biltzen asten bazerate, adituren bati galdetu ezaiozute lenengo.

Balio aundiko bildumak ezin daitezke egon edozein pertsona bakarraren eskuan, ortarako diru asko bear bait da. Orregatik bilduma baliotsuenak Estatuaren esku, naiz Elkarteren baten esku izaten dira.

Liburutegia: liburuak eta liburu-bildumak ikustera ta erabiltzera jendea joan daitekean tokia da.

Pinakoteka: margozketa bilduma dagoan tokiari deritzogu.

Arkeologi museoa: aspaldiko denboretako gauzen bilduma dagoan tokiari deritzogu.

Natura museoa: aztertuak izateko gordetzen diran landare eta abereen bildumak dauden museoa da.

Kolekzionistak, beste norbaitek sortutako gauza zaarrak eta modernoak billatzen, biltzen, eta eratzen ditu.

Pertsona askok gauza berberen bildumaketa egiten ba dute bi gauza geratu daitezke: beren balioa goratzea eta faltsifikatzaile ugari agertzea. Franklin, iparramerikar asmatzaileak urrezko kirtena zuan egurrezko makilla opari egin ornen zion Washington, bere lagunari. Gaur egun, iparramerikar askoren ustez beraiek dira benetako makillaren jabe, baiña Franklin-en makilla bat bakarra zan.



AZKENEKO ZUGAITZA

Ludia oso mantso zebillen; ia ezin zuan arnasarik artu. Noizean bein agure zaar batek bezala, eztula egiten zuan. Egia esanda, oso gaixo zebillen.

Kotxe, lantegietako tximini eta berogailluetatik irteten ziran keek, odei beltz bat osatu zuten gure inguruan.

— Au oso gaizki dijoa! —esaten zuten ekolojistik—. Iñork ez zien jaramonik egiten, ordea.

— Zugaitz geiegi mozten ditugu! —zioten izadizaleek—. Eta egunero ba-soak gero-eta txikiago biurtzen ari ziran.

— Gure ingurua ondatzen ari gera! —zioten etxe-eraikitzaileek—. Eta egunero gero-eta etxe aundiagoak eraikitzen zituzten zelaietan.

— Erriak oso zikiñak daude! —kexatzen ziran udalak—. Eta zaborteziak gero-eta aundiagoak ziran, irien inguruetan kotxe ta kurpil zaarrak pillatzen ziran neurrian.

Azkenean, gizakiek kalera irteteko, maskara eraman bearra izan zuten.

Laiño lodi batek dana estaltzen zuan. Argiak egun guztian zear piztuta zeuden, bai gauez eta baita egunez ere.

Itsasoko urak koipez eta petroleoz beltz zeuden.

Ibaiak arraiñik gabe, zikiñez eta usai txarrez beteta.

Egundoko giza-illararak zeuden farmazi aurretan, edateko ur-botilla bat lortzeko.

Zientzietako museoetan, zatikatutako abereen bildumak ikusten zituzten ikasleek.

— Lepoa luzea zeukan abere ori, «lepaluzea» zan. Afrikako ordeketan bizi oi zan.

Artz txuria lurburuetan ibiltzen zan.

— Antxetak multzo aundietan bizitzen ziran. Portu ta ondartzetan zear ibiltzen ziran egan.

— Abere guzti aukeratu egin dira —azaltzen zuten izadi-gaietako irakasleek liburuko argazkiak ikus-eraziz. Zenbait animalitatik, bakarren batzuk soillik geratzen dira zoologikoetan.


Nazioarteko Ikerketa Etxeko gela batean, ludiko azken zugaitzaren bizitza iraun-erazteko, aalegiñak egiten ari ziran zientzilariak.

— Bizirik iraun-eraztea lortzen badegu, bere aziez ludiko zenbait lurralde zugaitzez bete aal izango ditugu. Auxe da gure itxaropen bakarra!

Munduko biztanleak larri zeuden telebista eta irrati aurrean, ordueroko berriak entzunez.

Estuasunezko gau ta egun luzeak igaro ondoren, Ikerketa Etxeko Buruzagiak onako berri au eman zuan:

«Ludiko zugaitz bakarrari bizirik iraun-eraztea lortu degu!»



Baiña lanik zailena orduan asi zan. Mendiak eta loratokiak zugaitzez eta lorez betetzea ez zan naikoa; kutsaduraren sortzailleak aurkitu bear zituzten, bestela ez zuan balioko ezertarako ordura arte egindako lanak.


Gizakiek gauza askori ezetz esan bear izan zioten:

- Berebillaren ordezt txirrindua artu zuten.
- Ainbeste gauza gastatzeari ta ainbat zabor botatzeari, utzi egin zioten.
- Armak erosteko dirutzak, kutsaduraren kontrako ekintzetan erabili zituzten.

— Ibaiak, ondartzak, zaborteziak... e.a. garbitu egin zituzten.

Andik egun batzuetara, keez osatutako odei beltz lodi ura, gero-eta meeago biurtzen asi zan, eta eguzkia eta zeru urdiña ikusten asi ziran gizakiak.

Bizitako esperientzia, oso gogorra izan zan gizakiarentzat; baiña azkeanean, alperrikakoa ez zan izan, onurakorra baizik.



ITSASONTZI ` SORGINDUA

Lurbira osoko itsas-errietan ipui ta kontakizun ugari dituzte, itsaso zabaé lean eta ertzean gertatu «ornen» ziranen inguru. Egiakoak izango dira batzuk, urteen buruan itsastarren irudimenak asmatuak dira beste asko.


Eta itsas-ertzeko zein erritan ez ote dute entzun, noizbait itsasontzi bildurgarri bat izan ornen zala, batez ere gauez agertzen zana? Bai, sorginkeriazko itsasontzia, itsas-gizonak bildurrez dar-dar jartzen ornen zituana; eta deabruarekin elkartuta jokatzen zuten ontzi-buruak; gure «Mateo Txixtu» ezagunaren antzera, mundua mundu dan arte, itsasoko aizeekin borrokan ibiltzera zigortutako itsasgizon biurriak...

Onelako uste ta ipui asko dituzte itsas-ertzeko errietan. Oietako bat esango dizuet emen. Aspaldiko ipuietan oiñarrituta idatzi zituan Heinrich Heine alemaniarrek gauza asko. Alemani'n jaio ta gero Paris'en bizi izan zan, kristau biurtutako judutar olerkaria, 1856'an il zan arte.

Eta Wagner ospetsuak 1841 ean «Itsasontzi Sorgindua» izeneko abestantzerki edo opera sortu zuan, ain zuzen aurrekoaren idaztietan oiñarrituta.

Holanda'n bizi izan zan Barent Fokke izeneko itsasgizona, ain zuzen ere XVII. mendean. Ez zan arrantzale soil, ontziburu izan zan baizik. Guztiz itsusia ta zatarra ornen zan, eta beti biraoka ziarduana. Ala ere bai ornen zituana bere alderdi onak, itsasoko arriskuatarako trebetasuna ta ausardia bereziki.

Garai aietan ez ornen zan beste iñor ura autsiko zuanik, itsasontzia bizkor eta arin erabiltzen. Batez ere Amsterdamn uritik Batabia izenekora beintzat, bera ornen zan nagusi, beste guztiek baiño askoz laisterrago burutuz joan-etorriak. Siniskeriak ugari ziran garai aietan, bereala sortu zan jendeen artean alako uste bat: deabruarekin elkartuta zebilela alegia; au da, itun edo artu-eman bereziren bat ba zuala deabruarekin eta arek laguntzen ziola beste iñor baiño bizkorrago ibiltzen.



Bein, ordea, zai ta zai egon arren jendeak, Fokke itsusia ez zan agertu. Ez ontzi-burua, ez ontzia ta ez ontzi-gizonak, aztarrenik utzi gabe izkutatu ziranez, bereala sortu zan uste bitxi au, aoz-ao onela bait zioten: «Jakiña dago. Deabruak eraman ditu».

Beste ontzi-buru bat, Van der Dekken izenekoa, 1600 garren urte-inguruan bizi izan ornen zan. Eta... arrokeriaz betetako zin auxe egin omen zuan: Betikotasun osoa bear izango ba zuan ere, eta itsas-aize guztiak bere aurka izan, ala ere ez zuala etsiko, «Buena Esperanza» izeneko lurmuturra igaro arte bere itsasontzian. Geiegizko arrokeriaren zigortzat, betikotasun osoan itsasoz itsaso ibiltzera beartuta ornen dago.

Begirune aundiz jai egin oi zuten leenago Ostiral Santu egunez, ain zuzen ere egun ortan ospatzen dutelako kristauak Jesus'en eriotza. Euskaldunen artean ere orain urte batzuk arte, iñork ez zuan iñolako jolasik egiten Ostiral Santuz. Lanik ere ez noski. Giro ontan artu bearrekoa da, beste irugarren ontzi-buru bati egozten diotena: Ostiral Santuz irten zala itsasora bere ontzian eta ori doneuste aundia zala.

Laugarren ontzi-buru batena dator urrena. Iñungo kai ta portutan ez ornen zioten legorrera sartzea uzten, ontzikoan artean «beri-beri» izeneko izurria sortu zitzaiolako, jendeak kutsatuko ziran bildurrez. Orrela, bere jaioterrira itzultzerik ez zuan izan. Eta gaiñera, iñork ez du geiagoren geiago aren berriarik jakin aal izan.

Lau ontzi-buruen gertaera ustekoan inguru sortu zan «Itsasontzi Sorgindua» deritzaion ipuia. Mundua mundu dan arte itsasoan aize guztien aurka ibiltzeko zigorra bere leporatu ornen zuan ontzi-burua, gauza bakarrak askatu ornen dezake bere zigorpetik: emakume leial baten ziñezko maitasunak.


Jakiña danez, ikerketa zeatzek ongi argibidetu zuten, «Itsasontzi Sorgindua» sekulan ez zala egia izan. Ala ere, ezin ukatu, lau ontzi-buruen ipui oiek egi-apurrik ba dutela, zeaztasun asko erantsi zizkietelarik ere.

Bestalde, egia da itsasoan ere gertatzen dirala ispillu-irudiketa edo isladurak; gaztelerazko «espejismo» diralakoak alegia. Eta itsasontzi egiazkoen itxurako zerbait gertatzen da begietarako. Bestetik, itsasontzi uts eta erdi-apurtuak ere izan dira bat baiño geiago, itsastarrentzat arristu asko sortu dituztenak. Orrela, bada, era askotako zeaztasunez jantzita sortu da «Itsasontzi Sorgindua» dalakoaren ustezko ipuia.

GOIZ-ARGI

Ezerez, uts, illun gauz denak gauean:
sorkunde berri bat eguna asteen.
Argiaren atsak uki gaudiari...
So nago gauz denen agerkundeari.
Illunpe artatik antxe zaizkit ager
lenengo mendiak, gero soro musker.
Eguna jaio da. Zenbat margo eder!
Argiak pizteke ez da geldi ezer.

JUAN NW LEKUONA





NESKATX ONTZIRATUA

Brodatzen ari nintzen ene salan jarririk,
aire bat entzun nuen itsasoko aldetik,
itsasoko aldetik untzian kantaturik.

Brodatzea utzirik, gan nintzen amagana;
«hean jaliko nintzen gibealeko leiora,
gibealeko leiora, itsasoko aldera?»

—«Bai, habil, haurra, habil, erron kapitainari
jin dadin afaitera, hemen deskantsatzera,
hemen deskantsatzera, salaren ikustera».

«Jaun kapitaina, amak igortzen nau zugana,
jin zaiten afaitera, hantxet deskantsatzera,
hantxet deskantsatzera, salaren ikustera».

«Andre gazte xarmanta, oi, ezin ditekena!
Iparhaizea dugu, gan bear dut aitzina!
Ezin ilkia baitut, haxe da ene pena.

ERRI-MIÑA

Aspaldian joatekoa nintzan, lur maitea, zure bazter zoragarrienetako batzuetara; izan ere, ez ditut aaztuak zure belar goxoan egin ditudan jolasak. Goizero eguzkia sortu ordurako egin nituan laisterkak, an izan ditudan ametsak... Bai, ia-ia aaztuak nituan, bein ere ixiltzen ez zan errekatxo arek, marmarrean esaten zizkidanak.

Gaur zure biotzetik kanpora aurkitzen naiz. Italiara joan bearra izan genuan familia osoak eta orregatik gaude emen. Zure lurretan ez bait dago bizitzerik: lana gero-eta eskasagoa da eta bost senide mantentzeko zerbaiten billa atera bear. Aitak taberna bat jarri zuanean, denok geunden laguntzeko prest. Euskal janariak emango genituala erabaki genuan, orrela gutxienez beti gure gogoan izango ziñan.

Zutaz, lur maitea, asko gogoratzen gera, ez Salerno polita ez dalako, baiña zure berdea eta euria ez ditugu emen aurkitzen.

Amonaren baserria gogoratzen zait: bide bazterrean, erreka ondoan, mené dian oiñez ordubete egin ondoren.

Ez ditut aaztuko neguan egiten genizkion bisitak. Elurra zanpatzen, leran ibiltzen, eta gero sukaldeko sutondoan, suari begira, ango berotasun goxoan, amonaren istoriak entzuten.


Amona ere il zan, eta geroztik oso gutxitan joaten giñan baserrira, baiña elurra eta belarraren berdeak jarraitzen dute. Eta gu ain urruti, zuregana noiz itzuliko geran pentsatzen!...

Aspaldian itzultzeko gogoz nago, eta laister izango dala iruditzen zait. Bitartean, amestu egingo zaitut: zure mendiak, berdeak eta amonaren baserria.

Tximiniko sua piztuko det eta suari begiratu, amonaren irudia gogoratuko det.

Agur Euskalerrri maitea. Laister arte.

AMAIA ETXEBERRIA
Urumea Ikastola 7. maila



SHWE DAGON BUDATARREN PAGODARIK IKUSGARRIENA

Sortaldeko Birmania aundian eta Rangun uriburuan dago budatarren jau-
retxe edo pagoda bat bikaiña ta arrigarria, SHWE DAGON deitua. Ziur aski,
bera da budatarren eraikintzarik bikaiñena; eta bertan dago aien erlikirik agur-
garriena ere. Izugarrizko torre urreztatua duan pagoda onen barnean daude,
ain zuzen, arri bitxiz apainduriko kutxatillan gordeta, Buda agurgarriaren
zortzi ille.

Eraikintza urreztatu onen aurrean lenengo aldiz gertatzen dan bisitaria-
ri, egia esan, gauza bi gogoratuko zaizkio bereala: batetik «Budatarren kate-
drala» deitura zor zaiola, eta bestetik antziñako mundu-aldian ain ospetsu
ziran «zazpi arrigarriak» ez dirala ain bikaiñak onen ondoan, apalagoak
baizik.

Europar Kolonia uriko katedrala aundia baldin ba da, pagoda auen arte-
ko nagusiena, 14 metro geiago da goratasunez, guztira 170 metro luzekoa bait
da. Ez da arritzekoa, beraz, Rangun uriburuko eraikintzen artean, mendi urrez-
tatua bezain nagusi ageri baldin bada.

Dizdira egiten duan guztia ez omen dala urre, esaten ba du ere esaera zaa-
rrak, Shwe Dagon pagodan beintzat egia da, urre-urrea bait dauka oparo ta
ugari. Mindon Min izeneko erregeri zor zaio urreztatze-lana, 1871 n egiazko
urre-xafraz estali bait zuan torre naguasia, txantxetan ere 24 milloi pezeta-
urre —garai artakoak— txautuz apainketa ortan. Pagodaren gaiña millaka
arribitxiz orniturik dago, benetako pitxi-gorri, esmeral eta diamantez ere bai.
Urrezko eun ezkillak ageri dira torrean eta zillarrezkoak milla ta lareun, txiki
ta aundi. Ainbesteko aberastasunak ikusita, arrimenez beterik gelditzen dira
europarrak.

Baiña ez da iñola ere erri aberatsaren eskuzabaltasunaren emaitz edo frutu,
budatarren erlijio-zaletasunari zor zaio baizik pagodaren aberastasun izuga-
rri ori; izan ere, eskuarteko ondasunak bete-betean espirituzko ondasunen
serbitzura jartzen bait dituzte.

Bestalde, Shwe Dagon bakarrik ez da bikaintasun ederrez jantzia, beste
asko bait dira aundikiro ornituak. Birmania osoan barna diran pagodak, abe-
rats erlijio-zaleek eraikiak dira; eta orain bertan ere birmaniar aberatsek be-
ren bizitzaren azken-aldera pagoda berriren bat egiteko oitura dute.



Gaiña arri bitxiz apaindua dute pagoda ia geienek, eguzkitara dizdizka, eta ormak urrez estaliak dituzte. Bere ondasunak pagoda-gintzan jartzen dituanak, ardura berezia izaten du, aurrena mendixka bat eraikitzeko, pagoda gero aren giñean egiñez. Onela, Shwe Dagon egin aurretik, goratasunez 55 metro dituan ordeka egin zuten, aren gaiñean eraikiz pagoda. Guztira 65.000 metro kuadratu sail artzen du: gutxi gora-beera Kolonia uriko Katedralaren aurreko enparantza aiñako sail zabala.

Erromes jaierratsu edo erlijio-zale budarrak, oiñustu egiten dira armai-llak igotzen asi aurretik eta oiñutsik igarotzen dituzte saltokiz beteriko lau kale estaliak. Toki auetan oraindik ez da aunditasunik ageri, saltzaille ta erosle- leen artu-emanak baizik. Izan ere, opari eskeintzeko gauzak saltzen bait dituzte, loto-loreak, arroz azpiltxoak eta urrezko ogiak bereziki. Egia esan, urrezko ogia dute oparirik kutunena, eta urte batzuk bear izaten dituzte zenbait sendik orrelakoa erosi aal izateko. Gero, aurpegi alai dizdiratsuz eramaten dituzte, naiz pagoda nagusiko ta naiz inguruko besteren bateko orman itsatsita ipintzeko.

Tankera berezia dute Birmaniako jauretxe edo pagoda guztiek, borobil- erdi edo kupuladunak bait dira beren torreak, ezkillaren naiz tipularen an- tzeakoak, eta Shwe Dagon da guztien arteko eredurik jatorrena. Ain ardura aundiz eta sendoki egiñak diranez, arriluzko beren ormetan ez dute zulorik eta zirrikiturik. Antziñatik aoz-ao esaten dutenez, aspaldiko errege batek, orratz baten neurriko zuloa aurkitu zuanean, igeltseroen langilleburua iltzea agindu ornen zuan.

Bestalde, pagodaren eta bere egillearen artean sorginkeriazko lotura be- rezia dagoala uste dute birmaniarrek. Onela, eraikintzako edozer akats nai- koa ornen da eraikilleak gaixotasunen bat bereganatzeko.

Tibet eta Txina bitarteko lurraldetik jetxi ziran oraingo birmaniarrak K.o. IX. mendean. Aldi artan ez ziran artean budatar: «nats» izenekoak gurtzen zituzten jainkotzat, eta oraindik ere ez dituzte ukatu ta baztertu. Onela, Shwe Dagon pagoda ikusgarria ongi zaindu dezaten, iratxo ta maitagarri ornen di- ranen irudi dotore asko daude lau aldeetan jarrita. Izan ere, nolerebait aidean dabiltzala ta gizakien etorkizuna beraiek gidatzen dutela uste bait dute orain- dik. Eta oiek oartarazteko ustez, ezkillak jotzen dituzte budatar sinistunek, eundaka ezkillak bait daude; eta oietako bat, munduko aundienetakoa da noski, 25 tonelada bait ditu.

«Nats» diralakoan irudi irripartsuez gaiñera, eundaka dira Buda serioa- ren irudiak, eta auen aurrean ipintzen dituzte opariak eta antxe belaunika- tzen dira jaierratsu, otoitzean, gizonezkoak baiño emakumeak atzeraxeago di- ralarik. Budatarren otoitz-leku nagusia da, gogoeta sakona egiteko baretasun eta ixiltasun-giroan. Budatar lekaideak an ibiltzen dira pagoden artean, be- ren jantzi orixkaz estalita, askotan ixilik, baiña beste askotan gazteei pentsa- razten eta irakaspen onuratsuak ematen.



MATALAZ

Zuberotarren oiturak zaindu egingo zirala eta Zuberoan zuberotarrek agin-
duko zutela... zin egin zuten XVII garren gizaldian Frantziako Erregeek. Baiña
gero errege aien ondorengoek ez zuten bete itz ori.

Bein, Jean Arnaud de Peyre izenekoa, Luis XIV erregearen mandataria,
Zuberoara etorri eta bere burua jauntxo egiñik, errian agintzen, errikoei di-
rua kentzen eta erri-lurren jabe egiten asi zan.





Ori ikusirik eta geiago jasan eziñik, 1660garren urtean, zortzi milla zuberotar elkartu eta borrokarako jagi egin ziran, «Matalaz» zeritzaion Bernard Goienetxe apaiza buruzagitzat arturik.

Frantziako erregeak, minduta, urrengo urteko urrillaren llean zaldizko gudamutil talde ikaragarria bidali zuan Zuberoara euskaldunak menderatzeko.

Zuberotarrak, gogor egin arren, ezin eutsi alako indarrari, eta zapalduak izan ziran Sohüta (Xeraute) izeneko errian.

Matalaz, andik iges egiñik, zuberotar multzo batekin elkartu zan berriro, Urdiñarben.

Gero, Gotañera jo zuan, zuberotarren Batzar Nagusiak egiten ziran erri-
ra, baiña erregearen zaldizko gudamutillek laister aurkitu zuten.

Matalazek, orduan, bere lagunak bizirik ateratzea lortze-arren, atzerritarren eskuetan jarri zuan bere burua.

Mauleko gaztelura eraman zuten Matalaz, eta giltzapean sarturik eriotz-
zigorra ematea erabaki zuten frantzes agintariak.

Erabaki eta bete: 1661. urteko azaroaren Ban, Lextarren, Zuberoako or-
dezkarri jaunak biltzen ziran arbolapean lepoa moztuta il zuten.

Eriotz orduan abertzale arek esandako itzak ez dituzte zuberotarrek iñoiz
aartzuko:

«Dolü gabe hiltzen niz, bizia Ziberoarentako emaiten baitüt. Agian, agian,
egün batez jeikiko dira egiazko ziberotarrak, egiazko esküaldunak, tirano arro-
tzen ohiltzeko eta gure aiten aitek ützi daikien lurraren popüliari erreme-
titzeko!»

(KILI-KILItik artua)

TXOMIN-IPURDI

Bein erri batean bizi ornen ziran ama eta bere semea. Seme orrek ipurdi aundia zuanez, «Txomin-ipurdi» deitzen zioten guztiek.

Oso pobreak ziran, eta orregatik bein Txomin-ipurdik erregearen etxera joatea erabaki zuan, diru pixka bat eskatzera.

Alako egun batean abiatu zan erregearen etxe aldera, eta bidean zijoala, azari bat atera zitzaion au esanez:

— Nora oa, Txomin-Ipurdiiii...?

— Erregearen etxera, diru pixka bat eskatzera, —erantzun zion Txomin-ipurdik.

— Ai ni aren oillategian banengo! —esan zion azariak— Nik egingo nikek an bearra!

— Sar adi nere ipurdian, —esan zion Txomin-ipurdik.

Azaria sartu zan ipurdian, eta Txomin-ipurdi berriz ere bidean aurrera abiatu zan.

Andik aurreraxeago, otso haundi bat azaldu zitzaion onela esanez:

— Nora oa Txomin-ipurdiii...?

— Erregearen etxera diru pixka bat eskatzera —erantzun zion Txomin-ipurdik, oni ere.

— Ai ni aren zalditegian banengo! —esan zion otso aundi arek— Nik egingo nikek bearra!

— Sartu adi nere ipurdian, —esan zion ari ere Txomin-ipurdik.

Otso aundia sartu zan ipurdian, eta Txomin-ipurdi, azaria eta otso aundia ipurdi barruan zituala, aurrera abiatu zan.

Ala zijoala, ibai aundi bat, itxasoa bezalakoa, aurkitu zuan, eta iñundik ezin zala pasatu ikusi zuanean:

— Sartu adi nere ipurdian! —esan zion ibaiari, eta ibai osoa bere ipurdian sartu zan.

Ola legorrik pasatu zan beste aldera, eta aurrera eta aurrera joanda gero, erregearen etxera iritxi zan.

Dan, dan... jo zituan jauregiko ateak. Neskame ta morroi guztiak arrituta gelditu ziran, gizon ipurdi aundi ura ate ondoan ikusita. Bereala erregeari esatera joan ziran, ate ondoan gizon ipurdi aundi bat zegoala.

— Galdetu egiozue zer nai duan, —esan zien erregeak.

Galdetu zioten Txomin-ipurdiri ea *zer* nai zuan, eta:

— Diru pixka bat, ama eta biok obetoxeago bizitzeko —erantzun zien.



Erregeari esan ziotenean zer nai zuan, asarre jarri zan eta esan zien:

— Alperrentzako ez dagola dirurik, esaiozue. Eta konforme ez baldin bada, eraman ezazue oillategira, a zer afaria izango duten gaur gure oilloek!

Alperrentzako dirurik ez zeukatela esan ziotenean, Txomin ipurdi asarre jarri zan, ura ez zala alperra esanez, eta arek diru pixka bat besterik ez zuala bear. Orduan danen artean artu, eta oillategira eraman zuten.

Erregearen oilloak aundiak ziran, ardia adiñakoak. Txomin-ipurdi sartu orduko, asi ziran oilloak moko emendik eta moko andik, danen artean jan bear zutela. Txomin-ipurdi geldi-geldi egon zan pixka batean, baiña ikusi zuanean, neskame eta morroiak andik joan zirala:

— Atera adi nere ipurditik, —agindu zion azariari— oraintxe ago erregearen oillategian.

Azaria atera zan ipurditik, eta an zeuden oillo guztiak txikitu zituan.

Urrengo goizean, erregea jeiki zanean, morroi batzuei oillategira joateko agindu zien, eta gizon ipurtaundi aren ezurrak jaso, eta sartzeko lurpean. Morroiak oillategira iritxi ziranean, Txomin-ipurdi patxaran eserita zegon eta oillo guztiak lurpean dana txikituta. Azaria, berriz, bere gosea asetu zuanean, mendira joan zan.

Erregeari esan ziotenean zer gertatu zan, ezin zuan siñistu gizon batek oillo aiek guztiak txikitu zezazkeanik.

— Eraman ezazue zalditegira, —agindu zien morroiei— Aiek ez dituk oilloak!

Zaldi oso aundiak ziran. Txomin-ipurdi ikusi zutenean, lenengotik ikaratu egin ziran, gero gerturatzen asi ziran, eta batek ostiko eta besteak ozka, Txomin-ipurdi, larritu zan. Morroiak atek itxi zituztela ikusi zuanean:

— Atera adi nere ipurditik! —agindu zion otsoari— Eta ikustekoa izan ziran ango istillua, ango irrintziak eta zalapartak. Zaldi guztiak il zituan, otsoa mendira joan zan.

Urrengo goizean morroiak, saskia eta atxurra artuta zalditegira joan ziranean, Txomin-ipurdiren ezurak biltzeko asmotan, aurreko egunean baiño geiago arrituta gelditu ziran, zaldi guztiak ilda, eta Txomin-ipurdi patxaran eserita, ikusi zutenean.

Erregeari esan ziotenean zer gertatu zan, zer egin ez zekiala gelditu zan. Baiña berriz ez ziola burlarik egingo pentsatu zuan, eta erriko plazan lasto-pilla aundi bat jartzeko agindu zuan, eta antxe su eman, Txomin-ipurdi erretzeko.

Erri guztiak lan egin zuan lasto-pilla aundi ura egiteko, eta beraren gainean Txomin-ipurdi jarri zutenean tantaí aundi bati lotuta, su eman zioten. Erregea ere an zegoan gizon ipurtaundi ura nola erretzen zan ikusteko. Sua indartzen asi zanean eta Txomin-ipurdi berotzen:

— Atera adi nere ipurditik!, —agindu zion ibaiari—, eta ura asi zan indarrean ateratzen, eta sua itzaliz, ingura guztiak betetzen. Jende guztiak lasterka iges egin bear izan zuan andik, erregeak ere bai, itoko ez bazan.

Erregea bildurtu zan gizon ipurtaundi arek erri guztia ez ote zion ondakuko, eta bere aurrera ekarri arazteko agindu zuan. Ekarki zuten Txomin-ipurdi erregearen aurrera, eta onek ala galdetu zion:

— Zertara etorri zera jauregi ontara?

— Ondo dakizu, diru pixka baten billa, —erantzun zion Txomin-ipurdik— baiña ez didazu pixka ori eman nai izan, eta orain ipurdia diruz bete nai det.

Erregeak, berak zeuzkan diru guztiak, urre eta zillarrak danak biltzeko agindu zuan, baiña ala ere ez zan naikoa izan Txomiñen ipurdia betetzeko. Gero erri guztiko diruak biltzeko agindu zuan erregeak, baiña ala ere ez zuten Txomiñen ipurdirik bete.

Azkenean, Txomin-ipurdik antz eman zuanean erai guztian ez zegoela beste dirurik, naikoa ba zuala esan zion erregeari.

Txomin-ipurdik errege eta erri guztiaren aurrean auxe esan zuan:

— Nik ez det bear onenbeste diru. Gutxirekin, pixka batekin konforme nago, eta bear dedana bakarrik artuko det.

Erriko jendea bere jokabide txarraz lotsatu egin zan. Txomiñen ausardia eta borondate ona ikusita, txalotu egin zuten, jaialdi ederrak burutu zituztelarik aren oorean.

«Kontu Zaarrak»
JOSE ARRATIBEL



KATTALIN

Andre Kattalin sutondoan jarrita, eta krisaillu baten argipean galtza zaar batzuei adabakiak jartzen ari zan. Betaurrekoekin urtetsuago zirudien, baiña, oraindik ere andre gazte ta itxurakoa zegoan. Berrogeita lau urteko etxe-koandre maratz, txukun eta langillea zan, argala eta zaintsua, bular apalakikoa, baiña aurpegiz legun eta mardula. Izaeraz kezkatu ta urduri xamarra zan. Etxahundar guziak bezela berotualdi gaiztokoa. Bere begien dirdirari begiratuta, ezagun zuan emakume eder eta atsegingarria izan zala gaztetan.

Ogei ta emezortzi urtetaraiño gordiñik eta mardulik iraun zuan emakumea izan zan, baiña, geroztiko beraka bearrak gero eta abaila biziagoa artu zuan, eta beti emakume argal antxa izan zanez, ezur eta azal gelditzeko bidean zijoan.

«Joanak joan»
JON ETXAIDE

A decorative border with a repeating floral and scrollwork pattern, rendered in shades of gray, framing the central text.

Xirri - xerri
xirri - xarra
ximirri - xamarra
xirri - xorro
ximirri - xomorro
xorro
xomorro

ALFANJUIREN AMONA

Alfanjui mutikoaren amona, bigarren etxamaillan bizi zan. Bere etxera patiotik sartzen zan. Patioko eskubi aldean burnizko barandillaz eta maats sareaz ornitutako arrizko eskallera estua zegoan. Eskalleraren bukaeran atsedentokia, balkoi luze-luzearen antzekoa, atetxo txiki batean bukatzen zan. An bizi zan amona.

Alfanjuiren amonak txitak kolkatzen zituan bere magalean. Bat-batean kalentura igotzen zitzaion eta ogei ta bat egunez irauten. Kulunkaulkian eseri eta eskuz estaltzen zituan arraltzak. Noizean bein buelta ematen zien eta ez zan kulunk-aulkitik mugitzen, ez gau eta ez egun, txitak atera arte. Orduan kalentura jeixten zitzaion eta ikaragarritzko otzaz oean sartzen zan. Pixkanaka otza joaten zitzaion eta oetik jeikita sutondoan eseritzen zan.

Udaberria eltzean, erriko aur guztiek, aurkitzen zituzten era guztietako arraultzak eramaten zizkioten. Amona erruz asarretzen zan, ez bait zitzaion zuzen iruditzen oillo arraultzen artean txori arraultzak kolkatzea. Baiña erriko neska-mutillak arraultza urdiñekin, arraultza orlegiekin, arraultza pintarrekin, arraultza errosekin, arraultza marroiekin etortzen zitzaizkion. «Au zer motatako txoriena dan jakiteko». «Auek, bi usokume azi nai ditudalako». «Au amak gaitzetsi dualako». «Auek nere teillatuaren gaiñean zeudelako». «Auetatik zer ateratzen dan jakin nai dedalako». «Au txoritxo bat nai dedalako»...

Dana dala, oillo ta aatean
amabost arraultzez gaiñera,
kolore askotako berrogei ta
amar arraultz arteraiño biltzen
zitzaizkion bere magal
beltzean.

— Lana, lana neretzat! Ori da
zuek ekartzen didazutena!

—oiukatzen zien amonak.





Baiña benetako ixkanbilla andik ogei ta bat egunetara izaten zan. Goizeko amaiketean eskallera eta ate-ondoa neska-mutikoz betetzen ziran, danak amonak noiz atea irikiko zai, bakoitza bere txoria artzeko. Amonak naiko denbora itxoin-arazten zien; bitartean neska-mutillak karraxi eta jolas ibiltzen ziran. Amonaren pausoak sumatu bakoitzean, beren usteak ziurtatzen zituzten: «Badator, badator!». Eta orrela itxoinaldia luze izaten zan. Azkenik, ia eguardian, atea irikitzen zuan amonak. Aur guztiek, pilloan, elkar jotzen zuten lenengoa izan naian.

Amonak gogoan zuan beti bakoitzaren arraultza, eta ez zan iñoiz naastutzen. Aurrak sarreran zai gelditzen ziran eta amona bat-banaka txoriak ematen asten zan:

«Ementxe dituzu zure usotxoak». «Zurea kanarioa». «Zurea txantxangorria». «Zure arraultzetatik sugetxoak atera dira». Aurrak orduan, eskuak jarri eta bost suge beltzak eramaten zituan. Bearko! Gaixoa, ateratakoarekin konforme ez zegoana! Ziranak zirala, artu berrak zituzten. Amona benetan asaretzen zuana, zera zan, kapritxoak.

— Nazka ematen dizula? Or konpon! Jasan bearco dezu, bada. Nik ogei ta bat egunez eduki ditut nere beroa emanez.

Eta bere lanarekin jarraituaz:

«Zureak birigarroak». «Zurea karnaba». «Zureak suangillak». Laister osatzen zuten beren artean trukaketa-azoka: Batek birigarroa nai eta ez ba zitzaien atera, ala zuan bat billatu eta trukea eskatzen zion. Izugarrizko asarre ta burrukak izaten ziran. Amonak, berriz ere onela oiukatzen zien:

— Naikoa da, emen ez neri ixkanbillarik sortu. Zoazte plazara!

Baiña alperrikakoa izaten zan.

«Zureak ez zuan ezer barruan, utsik zegoan» esan zion buruan laxo aundi bat zeraman neska bati, eta neskatxa, naigabeturik negarrez joan zan. Amona ez zan samurtzen.


Lana bukatzerakoan asarretu egiten zan berriri; ogei ta bat egunez kolkatu ondoren, su ta gar onela esaten zien:

— Eta iñoiz geiago ez etorri onera! Bein ere *ez!* Urtero lelo berdiña. Eta gero ez zerate bat ere oroitzen nitaz, ez goxokirik, ez bisitarik. Alde! alde! Ikusiko dezute datorren urtean!

Baiña urrengo urtean udaberriz, amona pozik eta alai. Eta urtero berri-tzen zan istori ura.

Eta... amonak eta aurrak diran bitartean, orrelako istoriak ez al dira berituko?





~r%

KUN-KUN

Ez negar egin. Nik emango, bai,
sagar bat ximel-ximela:
amoña bezain ximurra eta
goxo a bera bezela.

Au janaz, ondo, magaletxoan
atsegindurik aurrena,
seaskan lo lo, nere potxolo,
jarriko zaitut berela.

Ekatzu muxu
gero lo egin dezazun.
Lo, lo, tira maitea;
lo, lo... kunkun, kunkun...

Aingeru maite zoragarria
zorigaitz bat eztezuna,
seaskan orla mugira geldiz
amets egiten dezuna;
zeñen goxoak diran zuretzat,
nere maitetxo kutuna,
amon xarraren kantuak eta
seaskatxoan kunkuna!...

(E. Arrese'k)

NORK ESAN?

Atzo amonaren etxera joan nintzan. Atea jo ondoren berak ireki zidan.

Ez zuan egunero izaten duan itxura: Bere ille zuria orain, ortzadar koloretakoa zan, pazientzi aundiz tente-tente orraztua. Belarriak, berriz, era guztietako belarritakoz beteta. Gona orde, galtza estu eta nabarmenak. Zearo arrituta gelditu nintzan, eta are geiago, txapa eta katekorratzez apaindutako kazadora beltza jantzi zuanean.

— Amona, nora zoaz itxura orrekin? —galdetu nion.

— «Altza porru» dantzalekura nijoa. Nai al dezu nerekin etorri? Oso ondo ibilliko gera. Tira, nere motoan eramango zaitut, 500 zmko Kawasaki berrian bi minututan antxe izango gera.

Ez dakit nondik, bi kasko gorri atera zituan eta, ni konturatu gabe, bat buruan jarri zidan. Oartu baiño leen motoak 120 Km./o artu eta «Altza porru»ra.

Iritxi giñanean, izugarrizko zarata atereaz eta derrape ikaragarria egin ondoren motoa aparkatu zuan.

Atezaiñak oso arrera ona egin zion amonari. Kantari eta dantzan sartu zan barrura. Nik, lilluraturik, beste ainbeste egin nuan.

Asteazkena zanez, «karras-kirris» rock dantza txapelketa zan eta amonak, itxura zanez, bertan parte artzeko izena emana zuan.

Dantzari guztiek beren saioa egin ondoren, leiaketaren ondorioak eman zituzten. Zalantzarik gabe, amona izan zan txapelduna, asteazkenero irabazten bait zuan.

Gaueko irurak ziranean, dantzalekua itxi bear zutela, eta jende guztia bidaltzen eta tinbreak jotzen asi ziran.

Guk ez genuan alde egiteko asmorik, baiña besotik tiraka atezaiñak kanpora bidali ginduan.

Orduantxe, aurpegiari begiratzuz konturatu nintzan, atezaiña, gure aita zala eta ikastolara joateko ordua zala esaten ari zitzaidala.



EVERESTEKO IGOERA

Maiatzaren 13an abiatu gera 3gn kanpamendutik Lorente, Pasang Temba, beetik etorri diran Ang Nima eta Fruba Kitar, eta ni. Elur asko bota du bart. Bidea urratu bear duanez Pasang Tembak, oxigenoa erabilliko du.

Arkaitz Oriak iragan eta gero laiñoa sartu du eguerdi aldera eta ez du irurak arte altxako. Besterik gabe eldu gera Ginebrinoen Espolaira. Atsedenditxoa emen, zerbait jan eta edan, eta bistak ikusi: oso polita dago arratsaldea eta oskorri dagoanez bazter guztiak koloreztaturik dauzka.

Emendik aurrera naiko xamurra degu bidea. Elurra beti. Ego Lepoko karpn bistara eldu geranean, iru pote babarrun aurkitu ditu Ang Nimak elurretan: afaritan konponduko ditugula diosku.

Eta ola, Ego Lepora iritxi gera. Elur aundia; karpak *ere*, erdi estalirik, okertuta eta zapalduta daude erabat. Barruan leku pixka bat izateko karpak garbitzen eta txukuntzen lana gogotik egin degu.

Pasang Tembarekin sartu da Lorente karpa batean; beste biekin ni besteetan. Xerperk afaria eta tea prestatzen dituzten bitartean, oxigeno eki-poak probatu eta konpontzeari ekin diot.

Beekoekin itzegin degu, amaika t'erdietan jeiki eta gauzak prestatzen asioko gerala esan diegu; ordurarte, agur.

Afari ederra egin degu babarrun eta Tibeteko antxume-zeziñaren kontura; aparta. Zortzi milla metroz goitik jateko gogo aundirik ez dala izaten esan oi da; ez zait niri olakorik gertatu, platera nola utzi dedan ikusi besterik *ez* dago.

Ez degu lo aundirik egin; onelako gau batean, ainbeste pentsakizun buruan bueltaka, ez da xamurra lo egitea. Ez da ia aizerik; iñoiz bein mugitzen da oiala, baiña dana bare-bare, gau ixilla da.

Oarkabean pasa zaigu denbora; amaika t'erdiak dira, gauzak prestatzen asteko ordua. Sukaldetxoaren sua illunpetan, tea egiteko ura berotzen.

Asko kostatu zait zakutik irtetea; oso normala da, ez baita mugitzeko gogo aundirik izaten; logalea eta nagitasuna nagusi. Mantso-mantso oxigeno eki-poak prestatu eta motxilan sartu ditut neure gauzak: botella bat oxigeno, 16mm.ko iru roillo filma, argazki-kamara txikia, txokolate pixka bat, almen-drak eta gailletak. Amarren bat kilo guztira. Ordubeteko lana egiteko iruzpalau ordu bear izan ditugu.

Iru t'erdiak dira abiatu geranerako. Ez ditugu berreun metro egin, eta filmatzeko kamara karpan aaztu zaiola esanaz asi zait Lorente. Beera ostera. Kanpamendura eltzeaz batera, ordea, motxilla barruan duela oartu da. Gora, berriz.

Goizaldera zerbait argitu duanean, ez dijoala ondo esan dit Lorentek eta erretiratu egin bear duala. Pena da, ordurarte oso bide ona izan baitugu, elur gogorra. Pena aundiz agurtu degu elkar; eta oxigeno eki-poak aldatu ditugu, asko galtzen duta nereak.



Goruntz goaz. Bizpairu aldiz atzera begiratu det: elurretan eserita dago Lorente, goruntz, guri begira. Pena aundia eman dit ura an uzteak. Goruntz goaz, laurok. Nimak eta Furbak ez dute biderik urratzen, Pasang eta ni 5gn kanpamenduan aldatu bear ditugun beste boteillez kargaturik goaz.

Elur aundia degu 8.400 metrotik gora. Naiko bide txarra, neketsua, be-launetaraiño sartuta ibilli bear beti.


Zazpi t'erdi-zortziak aldera altimetroari begiratu diot: 8.500 m.; beekoei deitu diet, ea 5gn kanpoko karpa nun arraio dan galdezka, ez baitugu aurkitzen. Batera eta bestera billaka ibilli ondoren, makilla batzu ikusi ditugu elur tartean: ortxe dago karpa, elurpean izkutatuta. Bertako sukaldetxoan tea egiteko elurra urtzen ari den bitartean, guk boteillak aldatu ditugu. Nimak eta Furbak beera egin bear dute emen, Pasang eta biok gora jarraituko degu. Emozionaturik agurtu degu elkar.

Ertz bat igaro eta Ego Tontorreko aldapara iritxi geranean, motxilla, pioleta eta, beeraxego, bulto batekin egin degu topo: «bera izango dek, Ray Genet, gaillurretik jaisterakoan igaz il zan gidari amerikanoaren gorputza». Elurra kondizio txarretan dagoala ikusita, neurekin artu det nioleta lagungarri izango zaidalakoan.

Elur aundia dago, eta arroa: gerriraiño sarturik gabiltza maizenik. Ertz aldeko arkaitzetara jotzea degula onena, esan degu, eta arkaitzetik arkaitzera ibiltzea izango dela erraxena. An eta emen, bide bazterrean, zenbait oxigeno botella uts ikusi ditugu. Ego Tontorrera eldu baiño amarren bat metro leenago pitzadura aundi bat ikusi det. Ez nekien ondo, albotik pasatzean, zein baliagarri izango zitzaigun beerakoan.

Ego Tontorretik garbi ikus dezakegu nolako bidea geratzen zaigun: elurrezko ertz zorrotza luzatzen da gure aurrean eta, azken buruan, ain urrutitik billaka etorri geran elburua leenbizikoz ikusi degu, Everest mendiaren kaskoa. Oso arriskutsua da bidea, kornisa aundiak bait dauzka Tibet aldera, baiña oso-oso polita da, oso alpinoa. Pasang ez dago oso gustora emen, arriskutsua dala bidea dio eta atzera egin nai du. Nik, berriz, goruntz joateko gogoia, eta beartu egin det pixka bat. Bestalde, ez gaude oraindik nekaturik, indarrean gaude. Aurrera ekin diogu berriro.

Batak bestea ziurtatuz egin degu ertzeko bidea, Hillary-ren Espolaira iritsi arte. Ondo irabazia dauka espoloi onek zaillaren izena: amarren bat metro ditu, naiko bertikala da. Ezker aldera zenbait soka tinko jarriak ikusi ditugu



elurretan, baiña oso zailla dago orreraiño iristea. Zuzenean ekingo diogu ertzari. Oso arro dago elurra: pioleta sartzeko elur gogorra aurkitu arte asko zulatu bear izan det.

Espoloi gaiñera igo ondoren, etzanagoa da ertza eta, andik aurrera bi-deak ez du oztopo aundirik. Bizkar engaiñagarriak dira arazo bakarra: azkeneoa dala uste dezun bizkarra igotzen dezu eta bestea azaltzen da ondotik; ura igo eta, bestea. Eta ola bein eta berriz, ez duala bukaerarik dirudi; gogor egiten da. Denbora asko egin degu onela.


Alako batez, gauza beltz bat ikusi degu aurrean, laiño tartean; pausoa biziagotu degu zer den ikusteko —izan ere, dena laiñoak artuta dagoenean dimentsio diferentea artzen bait dute gauzek—. Tripode txinoa. Sekulako poza.

Goian, azkenean.

Pasang eta biok estu-estu besarkatu degu elkar. Sekulako gauza pilloa esan dit, baiña ez diot tutik ere ulertu, xerperaz aritu baita; alere, batzutan, ez da itz askoren bearrik sentimenduak adierazteko.

Tripodearen ondoan zutik, walkie-talkiea atera eta segitun asi gera gertatuaren berri beekoei ematen.

«EUSKALDUNAK EVEREST MENDIAN»



EGUNSENTIKO POZAK

Bai gauz ederra dala
goizean goizetik
udaran jaiki eta
makil bat arturik
mendian egitea
ibiltxo bat beñik!
Ez da munduan izan
ez orain t'ez lendik
orrek demaigun baño
poz aundiagorik!
Ipar-aize leguna
likurkaz beterik
gure kolkora dator
lorien tartetik;
baztar guziak daude
intzez apaindurik,
urdin-urdin zerua,
pipirrika txorik,
eguzkia ere parrez
mendien gañetik;
máindire bat bezela
goruntz arroturik
lañu txuri goiztarra
erreka-zulotik;
jolasean amilka
iturritxo garbik;
emen arros politak
an krabelin gorrik.

(E. Arrese'k)



AKROPOLIS

AKROPOLIS itza esatean, Grezia datorkigu gogora, itza bera gerkerazkoa izateaz gainera, izen ortako eraikintzarik bikaiñena antxe dagoalako. Eta gerkerara jota, goikoa edo garaia da «akros» eta uri edo iri da «polis», beraz gure euskeraz, Akropolis esateko, Irigarai esango genuke. Egon ere alaxe dago gainera: Greziako uri nagusiaren goanean, toki garaian.

Antziñako Grezia esatean, Atenas aipatu bear lenengo, eta Atenas aipatzean, Akropolis izendatu bear aurrena, izen aundiko jauretxe bikaiñez ornitua ain zuzen. Alde guztietara neurri egokien oreka ta edertasun bikaiña zituanetz, europear kulturaren gaillurra ta egoitza nagusia dala esan bear; eta bestetik, gizatasun egiazkoaren eredu ta ikur *ere* bai.

Atenas osoko jaun eta jabe zan Perikles gudalburuak, k.a. 461. urtetik aurrera eraiki zituan Akropolis artako arresien barruan, Grezia osoan izan diran eraikintzarik bikaiñenak eta txalotuenak; aietxen ondakiñak dira orain arriturik uzten gaituztenak.

Bere asmoak egokiago aurrera eraman nairik, eraikintza-batzorde bat sortu zuan Perikles agintariak, argin, eraikille, irudigille ta margozlariak tarteko zirala, eta guztien artean Fidias irudigille bikaiña. Egitasmo aundi ura burutu aal izateko, Atenas eta beste estadu elkartuen arteko ondasun-baltzutik atera zituan bearrezkoak. Atenas bera pozik, baiña beste estaduak aserre ziran asieratik; ala ere dana lortu zuan, guztira 1.700 milloi pezta kosta bait zan eraikintza ura orduko dirutan.

Karaitzezko arkaitza dago Akropolis zaarraren azpian, ain zuzen 156 metro itsas-maillaz gora ta Atenas baiño 80 metro gorago. Neolitos edo Arriaro berriaren garaian *ere* bizi ornen ziran toki artan, ikerleek argibidetu dutenez; eta ori zala, 4.000 urte dira orain. Lenengo gaztelu edo gudaluria, berriz, Kristo aurreko 1.200 urte ingurukoa da, eta oraindik ere aurkitu dituzte aztarrenak.

Gerora, k.a. VI. mendean jauretxe bat eraiki zuten atenastarrek, ain juxtu ere Atenea jainkosari eskeiña; toki berean aterpe bikain bat sarreratzat, eta beste jauretxe bat Nike edo garaipenari eskeiña ere eraiki zituzten aundikiro. Gutxi iraun zuten, ordea, zutik: persiarrek ondatu bait zituzten k.a. 480-479 urteeak bitartean.

Ondamendi ura ikusita, ez ziran lo gelditu greziarrak. Temistokles eta Zimon agintariek asiera eman zioten eraikintza berriari, baiña gauza bi burutzea besterik ez zuten lortu: inguruko arresiak jasotzea ta barrualdea berdintzea; eta ortarako, aurreko eraikintzen ondakiñak erabilli zituzten.

Persiarrek utzitako ondakiñetan egin dituzten ikerketek, egia esan, gauza bitxirik aurkitu dute. Batetik, Akropolis artako eraikintzarik zaarrenen egitura ta tankera nolakoak ziran ezagutzeko bideak aurkitu dituzte; bestetik, antziñako jauretxeetako zutabeak eta irudiak margo oso biziz apainduak zirala.




Lenengo eraiki zutena, Partenon izan zan, Atenas osoko jauretzerik nagusien eta bikaiñena, ain zuzen ere Atenea edo Palas Atenea deituriko jainkosari eskeiña. Egitasmoa zeaztu zuana, Iktinios izan zan, eta eraikintzaren arduradun, berriz, Kalikrates. Irudien eta beste apaingarrien ardura nagusia, Fidias ospetsuak izan zuan bere gain.

Zabalera 30 metro ta luzera 70 metro zituan ordeka edo zelaia egin zuten lenengo, eta aren gaiñean zutarri bikaiñak, aurrean zortzi ta alde banatan

Irudi bikain asko zituan barnean. Gaiña, berriz, *zurezkoa* zuan, egoki baiño egokiago landua, dotoreki margotu ta urreztatua. Gorri illunez margotuak ziran ormak barne aldetik.

Jauretxearen erdian, arritzekoa ez danez, Atenea jainkosaren irudi ikusgarria zegoan, 13 metrokoa, Fidias irudigilleak urre ta marfillez egiña. Urre-xaflak 7,5 milimetro lodikoak ziran txantxetan ere.

Kristautasuna zabaldu zanean, au da, V. mendean kristau-eliza biurtu zuten bere osoan. Urrena, berriz, turkiarrek 1456 an maomatarren mezkita biurtu zuten, aldamenen minarete izeneko torre sendoa eraikiz. Gero beneziarrak sartu ziran 1687 an, Kdnigsmarck kondearen gidaritzapean. Bertakoek, uritarrik nagusienak eta sutauts guztia mezkita barruan sartu zituzten, antxe ongi babesturik egongo ziralakoan, Partenon bikain ura ondatzera ausartuko ziranik ez bait zuten uste iñola *ere*. Baiña... edozertara ausartzen da basatikeria, eta, antziñado idazkun batek dionez, «Lünegurgdar gudalburu ase-rreru batek jaurti zituan leerkaiak jauretxea sututzera». Ala, suautsaren leerketak ondaturik utzi zuan nagusienik, gaiñak beintzat. Gerora 1834 an Babiera'ko Luis lenengoaren agindura Leo von Klenze saiatu zan 1834 an zaar-berritua ematen, baiña ezin izan zuten 1686 ko ondaketarik bere oneratu.



PÍA 60I Ri ZvAzo 3

beste amazpina, guztira 46 zutarrri, lurretik gora 10 metro luzekoak, eta egituraz «doriko» erara landuak. Auen eta teillatuaren bitarteko erlaizpe edo friso dalakoa, zoragarriri landua zan 159 metro luzeran; orain Londres uriburuko Erakustokian daude jasota 75 metro, beste guztia ondatu zalarik. Atenea gurtzera zijoan erria ageri zan irudietan.


Greziarren arteko ipuiek diotenez, Atenea ta Poseidon irrika biziz leiatu ornen ziran elkarren aurka, bietan nor izango Atenas uriaren jabe. Atenea, ain zuzen, adimen eta jakinduriaren jainkosa izaki, eta Poseidon itsasoen jainko. Bakoitzak bere aalmenak azaldu bear zituan, bestearenak gaindituz, eta onela, Poseidon an asi ornen zan bere iruortz aundiaz irigaraiko arkaitza ikutzen; eta bereala ur gazia ugari zerion iturria sortu ornen zan.

Ateneak, berriz, toki bereko arkaitz gorrian, arkaitz bizian, oliondo bat landatu ornen zuan; eta bereala itsatsi omen zan eta adar eta ostoak indartsu ematen asi. Bien artean Atenea aitortu zuan garaille bestek.

Aldi bereko bigarren eraikintza gogoangarria, —Periklesen garaikoa— Ate-nea Nike edo garaipenaren jainkosari eskeiñia da, txikia baiña ederra. Luze-zabalean ez da aundia, 5 x 8 metro bait da guztira, Kalikrates eraikilleak jasotako jauretxe polita. Zutarriak 4 metro luzekoak ziran. Auen eta teilla-tua bitartea dotoreki landua zan, 45 zentimetro goratasunez eta bira osoan jarraituz. Turkiarren aginte-garaian, bota egin zuten eta aren arlanduz egin zuten arresi-bular sendo bat. Alemaniar arkeologo jakintsu batek, Ross ize-nekoak bat-banaka aurkitu zituan arlanduak 1835-36 bitartean eta berriro eraiki zuan jauretxe txikia.

Nike jauretxea egiten 16 urte bear izan zituzten, bitartean Propileos edo aterpe aundia egitea erabaki bait zuten. Eraikintza au, Mnesikles eraikileari egotzi zioten: sarreran edo aurrean, amabi zutari zituan aterpeak, doriko erakoak. Propileos edo aterpearen alde banatan, areto aundi bi egitekotan ziran, biak zutari-gaiñeko teillatudunak, baiña ez zuten lortu bukatzerik. Ezkerrekoa bai, ordea, eta bertan jarri zuten lenen-lenengo «pinakoteka» edo margozlan erakustokia.

Laugaurren eraikuntza berezia, Erekteion deitua da, Poseidon eta Ate-nea jainko-jainkosei eskeiñia. Au ere Mnesikles eraikileari zor zaio. Eraikin-tza asi ta bereala, K. a. 431. urten, Atenas eta Esparta errien arteko gudaldia sutu zan: Peloponeso'ko gudaldia, txantxetan ere 30 urtekoa. Bitarte ortan il zan Perikles, izurriteak jota. Atenas ederrarentzat lotsagarri ba zan ere, 404. urtean egin zuten pake-ituna, arresi luzeak botatzera beartu bait zuten.



Gudaldiak txautu ba zizkien ere ondasunik geienak, bi urteko tarte batez baliatu ziran Erekteion burutzeko. Tankera oso bitxia du, aldi berean beste eraikintza batzuk sartu nai bait zituzten barnean: Poseidon'en iturria, Ate-nea'ren oliondoa eta Zekrops erregeren illobia ain zuzen.

Perikles aundiaren garaia, —bere maitalea bezala maite omen zuan Atenas— Europa osoaren eta gizadiaren kondairak izan duan une dizdiratsu ta bikaiñetako bat oso garrantzizkoa da zalantzarik gabe esateko.

RERETERTXEN KANTORIA

Altzak eztu bihotzik,
ez gaztanberak ezurrik...
Enian uste erraiten ziela aitunen semek gezurrik.

Andozeko ibarra,
ala zer ibar luzea!
Hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza.

MARRAZKI BIZIDUNAK

Marrazki bizidunak, zinerako teknika ber-berak erabilliz, filmatu eta emandako marrazkiak dira. Orrela igidura itxura lortzen dute. Marrazkiak biziarazteko kamaraz baliatu zan lenena, Emili Cohl izan zan XXgarren mendearen asieran.

Sullivan eta Mesmer-ek ain ezaguna dan Felix katua sortu zuten 1920. urtean. Ipuin atsegingarri auek berealako arrakasta izan zuten Ipar Ameriketan.


Baiña marrazki biziduneko filmeak 1928. urtera arte ez ziran asi mundu guztira zabaltzen. Urte onetan Walt Disneyk marrazki bizidunen benetako aitak, aurkeztu zuan Mortimer pertsonaia, gero Mikey Mouse izenaz ezagutzen deguna.

Pertsonai atsegiñak sortzeko eta aien abenturak kontatzeko Walt Disney oso trebea eta aparta zan. Onen inguruan marrazkilari asko animatu ziran, eta baita pertsonai atsegin asko asmatu ere. Oso ezagunak: Popeye, Bugs Bunny, Silvestre katua, Tom eta Jerry katua...

Marrazki bizidunen teknika zenbait puntutan beste zinemaren antzekoa da: Fotograma bakoitzeko marrazki bat egin, eta amar minutuko emanaldirako 15.000 marrazki bearke lirake.

Walt Disneyk luze-metraiak egiterakoan marrazki-lana aurreratzeko bide berri bat asmatu zuan:

Irudiak parte geldietan eta parte mugikorretan banatzen dira. Parte geldiak bein bakarrik marrazten dira; eta igikorrek, mugimendu bakoitzeko marrazki ezberdiñak bear ditu, paper gardenetan. Onela parte geldiarri marraztutako parte mugikorrek gaiñeratuz, mugimendua sortzen da.



AXELKO EIZTARI

Basapiztietan maltzurrena dan azeri amak, oillo-asean azi zuen Axelko, bere umetxo. Gosea zer dan ez zekian txikiak, baiña aspertzen asia zegoan kobazuloan.

Inguruko oillategi batean oillo beltza, oillarra eta txakurra pakean bizi ziran. Oilloak bazkaria prestatzen zuan, txakurrak etxea zaintzen eta oillarrak kukurruku jotzen. Oso pozik bizi ziran.

Axelkok egunero ikusten zituan eta oilloa jateko irrika bizia zuan aspaldi, baiña txakurrak ez zion uzten arrapatzen.

Oilloak, iturrira uraren billa joan bear izaten zuan batzutan, eta iturri ondoan izkutatu zan Axelko. Oilloa joan zan beti bezala ur-billa eta... Zast!!! Axelkok jauzi bat egin eta oilloa atzaparrez arturik, aora eraman zuan.

Oillarra oiuka asi zan zugaitz batetik:

— Utziok! Utziok! Nere andrea dek! —esaten zion garraxi ta estutasun larriz oillarrak.

— Ire andrea? Nai badu bai! —erantzun zion pozaren pozez Axelkok.

Ori esaterakoan, aoa iriki bear izan zuan basapiztiak, eta oilloak iges egin zion. Bazetorren ordurako txakurra zaunkaz, eta oillo beltzaren lumak ten-terik utzita, an joan zan Axelko.

— Arrokeriak galdu nau oraingoan —zion bere barruan koba-zuloan sartzean—. Oillarrari jaramonik egin ez banio, eta ixil-ixilik jokatu izan banu, oillo beltza afalduko nukean, gaur.

Andik aurrera, oillo beltzaren burla nola gaindituko, billa zebillen. Ez zion barkatu nai. Gauez eta egunez asko pentsatu ondoren, bazkari goxoa egitea erabaki zuan. Sua piztu goizetik, ura irakiten jarri pertz aundi batean, eta an irten zan.

«Berotuko da ni itzuli orduko, eta oillo salda beroa edango det aurrena —zioen bere baitan—.

Zerbait esatekorik baldin bazuan ere, zakuan sartu eta bere txokora ekar-tzea zuan bere asmoa, onela mintzatuz:

— Orrela ez det aoan trabarik edukiko.

Badijoa Axelko, zakua bizkarrean, eskale-itxuran oillategira.

Oillo beltza egurrak biltzen ikusi zuan urrutitik. Zakurra non zebillen be-giratu aurrena, eta atzetik joan zitzaion oilloari; buztanetik artu zuan eta za-kuan sartu. Ixtant batez egin zuan lana, oillarra eta txakurra konturatu gabe.

— Gaur ondo atera zaizkit gauzak —esan zuan.

Bere presarekin uste baiño geiago nekatu zan bidean eta zakua aldame-nean zuala, lo gelditu zan zugaitz-azpi batean. Atzaparrak erori zitzaizkion lo zegoan bitartean eta zakuaeren aoa zabalik utzi... Oillo beltza poliki-poliki



atera zan, eta zakuan arri bat sarturik, etxera itzuli zan arin baiño ariñago.

Lo-kuluxkaren ondoren, zakua bizkarrean artu, eta badijoa Axelko salda beroa egitera.

— Ez du oraingoan parrerik egingo oillo beltzak nere bizkar!

Glo-glo-glo irakiten ari zan pertzaren parean zakua iriki, eta... ara nun joaten zaion arria uretara.

Plasst! Ur bero zipriztiñak Axelkoren sabel azpira, anketara eta muturre-ra joan ziran. Erdi kixkaidurik eta garraxika joan zan Axelko errekarara.

— Ezagutu ez banu nik oillo beltz ori!

Baiña egiña egiñik.

IRUÑAKO FERIETAN

Iruñako ferietan
iragan San Ferminetan,
ehun zaldi arribatu Andaluziatik tropan,
merkatu eder bat zautan,
zagolarik bi lerrotan.

Bat zen pikarta zuria,
bota bainion begia,
Andaluz batek egin daut bi untz urreren galdia;
eskain orduko erdia,
—«har zak, hiria duk zaldia...»





OILLASKO EZURRAK

Bein, Fernando etxeratu zanean, ez zegoan ez surik eta ez bazkaririk. Nola, orduan, otordua egin? Ona, Pernandok zer asmatu zuan.

Erretore-etxe aldera joan ziran emaztea eta biak laisterka bizian, emaztea karraxika, senarra deadarka, zigor bat eskuetan zuala.

Erretorea, emaztearen karraxiak entzun zituanean, atarira atera zan, eta Fernando bere zigorrarekin ez-egiteko bat egiteko antzean ikusi zuanean, bien artean sartu zan oi u egiñez:

— Geldirik! Gizona, zer da zatarkeri au?

— Zer dan? Onelako emakumea, txiki-txiki eginda ere, ez da bear bezela ordaintzen.

— Zer izan dezute, bada?

— Ezer ez.

— Ta ezerrezengatik, orrela jarri?

— Bai jauna: ezer ez, ez surik, ez bazkaririk.

— Begira, begira; gaurko beintzat, zuentzat bazkaria nere etxean badago ta utzi ezaiozu aserreati.

Pernandok ez zuan besterik nai, eta asarre-itxura pozik utzi zuan.

Pernando Erretore jaunarekin jan gelara bildu zan.


Erretoreak txuliatzeko gogo aundia zeukan egun artan eta, bazkaritan oillaskoa ekarri zutenean, ezurrak Pernandoren aldera jarri zituan eta mamiak berera.

Erretorea parrez «gur-gur» ari zan Pernandok jartzen zuan aurpegi illuna ikusirik, eta zerbait esan bear, eta ala esan zion:

— Aiztian, emaztea arrapatu izan bazenu, zer egingo zenion?

— Jauna, orain platera onekin egiten dedan bezela, lepoa biurrituko nion.

Eta platerari buelta emanez, mamiak bere aldera ekarri ta ezurrak erretoreari utzi zizkion.



Urra labiru, labiru, labiru, labina lena
urra labiru, labiru, labiru lon
urra labiru, lena, lena, urra labiru lena, lena
urra labiru, labiru, labiru, labiru, lon.

Beleak Barreagara zerbait daroa: badaroa, berea daroa;
baba errea aoan daroa.



Akerrak adarrak okerrak ditu.



Printze Txikia

Basamortuan agertu zitzaidan Printze Txikia, mutiko arrigarria, izarbela batetik bestera ibiltzen asi zan. Aietako batera eldu zanean, aundi-ustez betetako arroputz bat aurkitu zuan bakar-bakarrik.

— O! O! Orra or ni mirestera datorren bisitari bat!- esan zuen ozenki arroputzak, Printze Txikia urrutira ikusita.

Arroputz aundiusteentzat, izan ere, beste gizon-emakume guztiak, beren miresle besterik ez dira.

— Egun on! —esan zion Printze Txikiak—. Bai bitxia dala zure kapelu ori, jauna!

— Agur egiteko da,—erantzun zion arroskoak—. Bai, txalotzen nautenei, agur egiteko da. Baiña emendik ez da iñor iñoiz igarotzen, zori txarrez.

— Ara! Bai, e? —esan zuan Printze Txikiak ezer ulertzeke.

— Jo itzazu zure eskuak bata bestearen kontra. Txalo jo ezaidazu berea-la! —agindu zion arroputzak.

Txaloka asi zan gure Printze Txikia, esku bata besteari zirti-zarta joka. Arroputzak bere kapelua gora jaso, agur egin zion, erantzunez.

Printze Txikiak onela zion berekiko: —«Erregeri egin diodan ikustaldia baiño atsegiñagoa da au». Eta bere eskuak erabilliz, berriz ere zirti-zarta txaloka asi zen. Eta arroskoak ere berriz egin zion agurra, kapelua jasota noski.

Bost minutuz jardun ondoren, berak txalo ta besteak kapelua jaso, aspertu egin zan jolas artan. Eta ala galdetu zion:

— Zure kapelu ori lurrera eror dadin, zer egin bear dut nik?

Jaramonik ez zion egin arroputzak. Ez-entzuna egin zion. Arrosko aundiusteek, izan ere, gorespenak eta losintxak bakarrik entzuten bait dituzte.

Eta alako batean, galdera au egin zion:

— Benetan, asko miresten eta aundiesten al nauzu?

— Baiña, mireste ta aundieste oiek, zer esan nai dute?

— Auxe esan nai dute: Izarbela ontako gizonik ederrena, apaiñena, dotoreena, aberatsena, argiena ta burutsuena, ni naizela aitortzea.

— Baiña izarbelaren gaiñean zu bakarrik bizi zera-ta...

— Ez dio ajolarik. Aundietsi ta goraldu nazazu. Egidazu mesede ori.

— Bai, bai. Arriturik naukazu zure ederraz. —erantzun zion Printze Txikiak *bere* sorbaldak jasota. —Baiña zer mesede atera zenezake ortatik zeuretzat?

Eta joan egin zan andik gure Printze Txikia.

«Egia esan, guztiz bitxi ta arrigarri dira pertsona nagusiak» —esan zion bere buruari, bere bidaiak egiten jarraituz.



Urrengo izarbelan, edale bat bizi zan. Tristura oso aundian sartu zuan Printze Txikia bisita labur onek.

— Zertan ari zera or? —galdetu zion edaleari.

Alde batean botilla utsak zeuzkan pillan eta bestean botilla beteak. Eta ixilik zeuden edalearen ezpaiñak, baiña...

— Edaten! —erantzun zion dana goibel eta betillun.

— Zergatik edaten dezu? —galdegin zion gure txikiak.

— Aaztu nai dedalako. —erantzun zion edaleak.

— Zer aaztu nai dezu, bada? —galdetu zion arriturik.

— Lotsatu egiten naizela, aaztu nai det, —erantzun zion buru-makur.

— Zerk lotsarazten zaitu, ordea? —galdegin zion Printze Txikiak gero-ta jakin-min audiagoz, lagundu nairik.

— Geiegi edateak lotsarazten nau, —erantzun zion, eta ixiltasun osoan geditu zan, beste itzik esan gabe.

Zer esan ez zekiala gelditu zitzagun Printze Txikia, arriturik, eta beste norabait joan zan andik.

«Benetan, guztiz bitxi ta arrigarri dira pertsona nagusiak!» —esan zuan berriz ere bere baitan, ibillaldiari jarraituz.



Txit apartekoa zan urrena aurkitu zuan izarbela: danetarik txikiena. Gau-argi edo farol bat eta bere piztaillea besterik doi-doi egon zitezkean an. Ez erririk eta ez etxerik ez zeukan izarbela artan, zeruan or nunbait galdurik dabillen izarbelatxo artan, zertarako ziran gau-argia ta bere piztaillea? Ez zezakean ulertu gure Printze Txikiak.

«Gizon au, burugabea izango da agian... Ala ere, arroputza ta edalea bezain zoroa ez da. Jo-muga edo zentzua ba du onen lanak. Gau-argi ori pizten duanean, izar berri bat, naiz lore bat sortaraziko balitu bezala da. Eta gau-argia itzaltzen duanean, izarra naiz lorea lotarazten dituala dirudi. Polita da lan ori, eta polita danez, balio du zerbaitetarako».

Izarbela txikira eldu zan bezain laister, begirune aundiz egin zion agurra:

- Egun on. Zergatik itzali dezu gau-argia?
- Egun on, zuri ere! —erantzun zion piztailleak— Orixe daukat aginduta.
- Zer agindu da ori?
- Orixe, gau-argia itzaltzea. Gau on!
- Eta bereala piztu zuan berriz.
- Zergatik piztu dezu orain berriz?
- Orixe daukat aginduta, —erantzun zion piztailleak.
- Ez det tutik ere ulertzen, zer ari zeran.
- Zer ulertu ta ulertu-ondo! Agindua, agindu da ta kito! Egun on! —erantzun zion erdi-aserre.



Eta berriz ere piztu egin zuan gau-argia. Ondoren, sudurzapi bat, lauki gorriduna atera, eta bekokiko izerdia txukatu zuan.

— Lanbide izugarria, Latza da nerea emen. Leen ez bezalakoa, zentzuzkoa bait zan leen: Illunabarrean pizten nuan eta egunsentian itzaltzen. Orduan, egun osoa atsedenerako ta gaua lotarako nituan.

— Agindu berriren bat artu al dezu, bada, orain?

— Ez, agindua ez da aldatu; leengoa bera da. Ain juxtu ere, ortxe dago arazoaren larria ta latza. Urtetik urtera gero-ta ariñago dabil izarbela au biraka... Agindua ez da aldatu, leengoa bera da.

— Eta orduan zer? —galdetu zion Printze Txikiak.

— Minutuko itzuli bat egiten duala izarbelak orain... Atsedean artzeko ez daukat une bat ere: segundurik ere ez. Minutu batean piztu ta itzali egiten ditut.

— Arritzekoa da, benetan! Zure izarbelan, beraz, minutu bat besterik ez du irauten egunak.

— Ez da arritzekoa, —erantzun zion piztailleak—. Biok emen izketan ari geran bitartean, illabete egin degu dagoaneko.

— Illabete osoa?

— Bai. Ogei ta amar minutu. Ogei ta amar egun, alegia. Gau on!

Eta berriz ere an piztu zuan gau-argia.

Aginduak ain zintzo ta zuzen betetzen zituan piztailleari begira gelditu zan Printze Txikia, maitagarri gertatu bait zitzaion. Bere aulkia aurreratuta, besterik gabe, ainbeste aldiz ikusi zuan eguzki-sarreraz oroitu zan. Eta adiskideari lagundu nairik, ala esan zion:

— Adiskide: nai dezun atsedeen guztia ar dezazun, badakit nik bide egokia.

— Ez nuke besterik nai. Ikasteko, prest naukazu.

Izan ere, bat izan daiteke aldi berean zintzo ta alper, eta onela esan zion Printze Txikiak:

— Zure izarbela au ain txikia danez, iru urratsetan egin zenezake itzuli osoa. Ibil zaitez poliki-poliki, patxadan, eta orrela beti eguzkitan gertatuko zera. Atsedeen artu nai dezunean, ibilli egingo zera, eta... orrela, zuk nai aiña iraungo dizu egunak.

— Orrek ez dit gauza aundirik ekarriko, —esan zion piztailleak—. Nai aiña lo egitea beste ametsik ez det nik bizitza ontan.

— Zorigaitza galanta, zurea! —esan zion Printze Txikiak.



4

lit

— Zorigaitza galanta, *nera!* —erantzun zion piztailleak— Egun on!
Eta itzali egin zuan bere gau-argia.

Izarbela artatik aldegitan, onela zion Printze Txikiak berekiko:

«Piztaille ta itzaltzaille au, iñozo ta kaxkar joko dute beste guztiek: arropuzak, edaleak eta beste... auskalo zenbategi. Neri, berriz, parregarri ez dan bakarria iruditzen zait. Zergatik? Bere burua ez dan beste zerbaiten ardurarik ba dualako.»

Asperenka asi zan eta ala esan zuan:

— Nere adiskide izan zitekeanik, auxe bakarria nuan... Damurik, ordea, izarbela au txikiegia da. Biok bizitzeko tokirik ez dago bertan...

Gauza bat ba zuan Printze Txikiak, argiro aitortzera ausartzen ez zana: Izarbela bedeinkatu ura uztea benetan sentzitzen zuala, eguneroko ogei ta lau orduetan, milla lareun eta berrogei aldiz ikus zezakealako eguzkia bere sarrera egiten...

PRINTZE TXIKIA

(Antoine de Saint-Exupéry)

MORROI AZKAR BAT

Lur eta aberastasun aundiak zituan nagusi petral bat bizi zan etxe eder batean: iñortxok ere aren gustorik betetzen ez ziona. Morroi bat joan eta bestea etorri, iñork ez zuan arekin irauten: guztiek bazituzten aitzikiak, etaaa... naiz beren gogoz naiz bialduta, denbora gutxi egiten zuten beintzat etxe artan.

Bein etorri zan lan-eske mutil gazte bat oso itxura onekoa, eta lanerako ere sasoikoa ematen zuana. Etxe ortan morroi baten bearrean zeudela-ta, nagusiarekin pixka bat egon ondoren, lan billa zetorrenak ala esan zion nagusiari:

— Etorriko naiz etxe ontara morroi, eta gañera soldatarik gabe.

— Zer nai dek, bada? —erantzun zion nagusiak.

— Zera, —erantzun zion besteak— kondizio bat bakarrik jarriko dizut: gu biotan aurrena asarratzen dana, bizi bizirik larrutua izan dadilla. Ondo iruditzen al zaizu?



— Bai! —erantzun zion nagusiak—.

Izan ere oso zikoitza zan, eta soldatarik gabe lana egingo ziola agindu zionean gazteak, uste zuan asarratu gabe iraungo zuala berak.

Morroiaren asmoak beste batzuk ziran: nagusi petral ura dana ondatuta utzi nai zuan. Lenengo egunetan dana ondo joan zan, morroi berria langille ona zanez, nagusia oso pozik bait zegoan.

Noizean bein, morroia joaten zan nagusiarengana eta ala galdetzen zion:

— Kontentu, nagusi?

— Ni bai, ta i? —erantzuten zion besteak.

Goiz batean, nagusiak onela esan zion morroiari:

— Artu idiak eta gurdiak, eta ekarri itzak aal dituan egurrik okerrenak.

Idiak eta gurdia artu zituan morroiak, eta, nagusiak zeukan maasti bate-ra joan, maatsondo guztiak sustrai edo zaiñetatik atera, eta aiekin gurdia kargatu ondoren, etxera etorri zan.

Nagusiak ori ikusi zuanean, ez zekian zer egin; odol guztia burura igo zitzaion eta morroiari ala esan zion:

— Zergatik egin dek ori?

— Ez al didazu bada esan, aal ditudan egurrik okerrenak ekartzeko? Nik ez det bada okerragorik ikusi. Kontentu, nagusi?

— Ni, bai! —erantzun zion nagusiak—, parre txiki bat egiñez, naiz-eta barru guztia kixkaltzen eduki. Ez zuan bere larrurik galdu nai.

Urrengo egun batean berriz ere nagusiak agindu berezi au eman zion morroiari:





— Artu idiak eta gurdia, eta ekarri arrapatzen dituan egurrik zuzenenak.

Idiak eta gurdia artuta atera zan etxetik morroia, baiña mendira joateko orde, nagusiak zeukan lizardi eder batera joan zan. An zeuden ederki asko jarrita lizar gazteak, zein baiño zein zuzenagoak. Oietxekin gurdia kargatu, eta etxera etorri zan morroia. Nagusia ondoeza ia egiñean gelditu zan, lizarrik onenak alperrik galdu zizkiola ikustean. Baiña morroiak ez zion ezer esateko denborarik eman:

— Kontentu, nagusi?

— Ni bai! —erantzun zion nagusiak— eta i?

— Ni ere bai. Auetxek izan dira nik arrapatu ditudan egurrik zuzenenak.

— Ondo zegok, —erantzun zion nagusiak, asarre ez bazegoan bezala—.

Orain sartu itzak ate-zulo ortatik, idi, gurdi, eta egur oiek danak.

Ori esan zion, oilloak pasatzeko atea zeukan zulo bat erakutsiz, lan eziñzkoa zala-ta, morroia asarratuko zualakoan.

Baiña ez zuan ondo ezagutzen morroi ura. Artu zuan aizkora aundi bat, eta aurrena idiak txikitu zituan, milla puska egin arte, eta gero pixkanaka, pixkanaka, ate-zulo artatik sartu zituan.

Eta berdin egurrak eta gurdia ere. Nagusia geroz-eta geiago tripak jaten zegoan, baiña ezin ezer egin.

— Kontentu nagusi? —esaten zion noizean bein morroiak nagusiar.

— Ni bai, eta i? —erantzuten zion beti onek.

Nagusia aspertu zan orrelako morroiarekin, baiña ezin iñola ere bota.

Nagusia ori, oso aberatsa zanez, toki askotan zeuzkan mendiak, lantegiak eta jauregiak. Bazeukan zillarrezko meategi bat *ere*. Goiz batean ots egin zion morroiari zerbait esateko:

— Leitzen ba al dakik?

— Nik ez, —erantzun zion morroiak— ez nuan txikitan ikasi ta...

Gezurra esan zion. Ikasita zegoen ura leitzen.

— Ikusten al dek au? —esan zion nagusiak eskutitz bat erakutsiz—. Eraman ezak eskutitz au meategian lanean ari diran tokira, emaiok an aurrena ikusten deanari, eta bertan itxoin erantzuna artu arte.

Morroiak artu zuan eskutitza, eta bidean zijoala, bertan jartzen zuan dana irakurri zuan. Eskutitzak au esaten zuan:

«Gutun au daramana, neri kalte aundiak egiten ari da. Inguruan daukazun leize batera bota ezazu, eta geiago ez dadilla lur gainean azaldu».

Morroia, naiz eta eskutitza irakurri, aurrera joan zan bere bidean. Meategira iritxi zanean, gerturatu zan lenengo ikusi zuan langillearengana, eta, nola gutuna emango, langillea bera bota zuan zulo batetik beera. Gero, ezer gertatu ez balitz bezala, etxera itzuli zan.

Nagusiak ez zuan asko uste morroi ura berriz etxean ikusterik, orregatik, ikusi orduko galdetu zion:

— Ez al dek iñor billatu meategian?

— Bai, —erantzun zion morroiak—, eta eskutitzak jartzen zuan bezala, leizean beera bota det lenengo ikusi dedana. Kontentu, nagusi?

— Ni bai, —erantzun zion nagusiak gogo txarrez— eta, i?

— Ni ere bai.

Andik egun batzuetara, nagusiak esan ala zion morroiari.

— Biar goizean goiz, eizera joan bear dek beste bi lagunekin, txakurrak eta eskopeta prestatu, eta ik usterik gutxiena dean tokian, jeikiko zaik erbia.

Nagusia itzeginda zegoen beste bi lagun aiekin, eta esanda zeuzkan, morroia ikusten zuten tokian bi tiro eman, eta iltzeko bertan, oso morroi kaltegarria zala-ta.

Urrengo goizean goiz atera zan etxetik morroia, bi txakurrak sokatik artu, eta eskopeta bizkarrean zuala. Baña mendira joateko ordez, nagusiak an inguruko erri batean zeukan jauregi bateko teillatu gainera joan zan. An, bi txakurrak aurretik zituala, goiz guztia batetik bestera ibilli zan, teillatu guztia txikitu arte. Noizean bein, tiro batzuk ere botatzen zituan. Aspertu eta nekatu zanean, etxera itzuli zan.

— Baña nola zitekek au? Berriz ere emen? —esan zion nagusiak ikusi orduko— Ez al zaik erbirik jeiki?

— Gaur ez beintzat —erantzun zion morroiak—. Zuk esan zenidan, nik usterik gutxiena nuan tokian jeikiko zitzaidala erbia, eta goiz guztia, olako tokitan daukazun jauregiko teillatu gañean ibilli naiz, eta an ez da erbi arras-torik azaldu. Ittukiñak bai, izango dira an ugari.

— Ori ere egin al dek? —asi zan nagusia bero-bero eginda, baiña morroiak bereala moztu zion jarduna, onela esanez:

— Kontentu, nagusi?

— Ni bai, ta i? —erantzun bear izan zuan besteak.

Orrela pasatu zuten denbora aldi bat. Morroiak nai zuana egiten zuan, eta nagusiak ezin ezer egin.



Garai artan txerri sail aundi bat zeukaten saltzeko, eta morroiak ala esan zion nagusiari:

— Aizu, nagusi, olako tokitan feria da egun auetan, eta nai badezu salduko ditut txerri oiek an.

— Ondo zegok, —esan zion nagusiak.

Joan zan morroia ferira, nagusiaren txerri gizenak artuta, eta bai ondo saldu ere, baiña erosleari baldintza bat jarri zion: «Txerrien isats guztiak beretzat bear zituala, etxera eramateko». Eroslea, konforme gelditu zan. Orrela bada, dirua jaso, txerrien isatsak zaku batean sartu, eta etxera-bidean jarri zan morroia. Baiña ez zuan etxera zuzenean joateko asmorik.

Mendi aundi batetik pasatu bear zuan, eta bazekian arek nun zegon leku loitsu bat. Aspalditik zeukan pentsatuta, txerri gizen aiekin zer egin. Toki loitsu artara iritxi zanean, atera zituan isatsak zakutik, eta, banaka-banaka lokatzetan sartu zituan, baiña punta agirian zutela. Gero lasterka etxera joan zan. Iritxi orduko ots egin zion nagusiari:

— Nagusi, nagusi?

— Zer dek motel, orrela berotuta etortzeko? —erantzun zion onek.

— Txerri guztiak lokatzak irentsi dizkit. Goazen azkar, oraindik isatsak ikusten dira-eta.

Joan ziran biak mendian gora, lertzeko zorian, eta leku loitsura iritxi ziranean, an ikusi zituzten oraindik txerrien isatsak.

— Ona emen, ona emen! —esan zuan morroiak, eta nagusia ta biak, isatsei elduta, txerriak ateratzen asi ziran, baiña isatsak bakarrik gelditzen ziran aien eskuetan.





— Txerri gizenak, buztana xamur! —esaten zuan morroiak, isatsak ateraz—. Esan gene4ake, sator-edo biurtu dirala gure txerriak...

Lan ura bukatu zutenean, biak etxera itzuli ziran ixil-ixillik, nagusia asarre ta morroia pozik.

Morroiari iruditu zitzaionean etxe artan egin bearrekoak egin zituala, nagusiari ala esan zion:

— Uste det, ni gabe ere egingo dituzula emendik aurrerako lanak, eta ondo iruditzen bazaizu, beste toki batera joango naiz.

Nagusiak ez zuan besterik nai, eta bereala erantzun zion:

— Ondo iruditzen zaidak i joatea, baña, esan genduan bezala, soldatarik ez diat emango.

— Ez det bearrik ere! —erantzun zion morroiak—. Ondo ordainduta noa. Ori esatean, txerri guztien salketa-diruak berekin zeuzkan...

— Kontentu, nagusi? —esan zion azkenean morroiak eskua emanez.

— Ni bai —erantzun zion besteak— eta i?

— Ni ere bai.

Besterik gabe joan zan morroi azkar ura, etxe artatik.

«Kontu Zaarrak»
JOSE ARRATIBEL

ANA JOSEPA

Gure Ana Josepa, goizeko irurak baiño leen asten zan deadarka, otoizka eta aginduka, gauza bat bestearen gaiñean esaten eta egiten zuala, aora edo burura zetorkion bezela. Jakiña zan asiera:

— «Gurutze santuaren señalegatik, gure etsaietatik...» Inaxio, jeiki adi, eguna dek-eta, «libra gaitzazu gure Jauna ta Jaungoikoa...» Katalin, piztu zan sua, txerrientzat zerbait gerta dezagun. Ta ez aaztu ikulluko txarkarta ekartzea «Aita gurea zeruetan zaudena, santifikatua izan bedi zure izena...» Jose Ramon, abereei botaiiek zerbait, gero eztek astirik izango-ta... «Betor gugana zure erreinua...» Auspoaren billa al abil? Ara non daukanan, emakumea...-

Orrela beti, itz, arren ta zeregiñetan beiñere aspertu gabe. Irurogei ta sei urte bazeuzkan, eta ez zuten soroetara eramaten, baiña bazuan zeri ekin etxe barruan. Berak egiten zituan oiak, berak txukundu etxea, berak beiak jetzi, berak gosaria gertutu. Ana Joseparen ustez, arrek bezelako baratzuri zuku gozorik egiteko emakumerik ez zan oraindik sortu. Ez ta sortuko ere. Ta ore a berak bezela nork egin? Taloak zeïnek erre? Esnetarako artoa, me-me zeïnek ebaki? Ezin zuan arrek, zion, onelako edo alakoren etxean ezertxo ere jan: Estopaua tipulaz betea, urdai-azpikoa erreegia, arraultz-opillak koipe geie-girekin, nazkatzeko bezela, billatu oi zuan. Ez zekiten ta. Jaio egin bear orretarako ere.

Baiña, biotz ederraren jabe zan gure etxekoandre zaarra, garbia, bearsuentzat oso emankorra, etxekoentzat eutsia, batzuetan eutsiegia. Ala zioten, beintzat, Zabaletako aita-semeek, eta aiek bazekiten.

«Garoa»

TXOMIN AGIRRE



PIA GOIRI



ESAERA ZAARRAK

Nerea nere eta zurea gure.

Eskerrik asko, Mari Belasko! Okela gutxi eta salda asko.

Do, re, mi, anka oker ori. Fa, sol, la, zuzendu zaiola.

MANTXAKO DON KIJOTE

(Don Kijote buru-argiak bere erritik lenengo aldiz egindako irteera dakarrena)

Bi neska gazte zeuden etxeko atarian Sevilla aldera zijoazen mandazai batzuekin batera; auek, eguneko ibillia egin ondorean, gaua pasatzeko geldituak ziran bentan; gure arriskuzaleak, bere buruan irudipenez edo ikusiaz gain edo gogoz jaiotako guziari, liburuetan irakurritako aien antzera egiña edo gertatua zerizkion; eta benta, ikusi zuanetik bertatik, gaztelutzat artu zuan: lau dorre, zillarrezko ttonttordun eta guzi, itxi-irikirako zubia faltatzeke, inguruko aska-unea eta onelako gazteluei ipintzen zaizkien ornigarriak zituana. Eldu zan benta ondora (gaztelu zerizkion artara) eta ao-ugaletik geldierazi zuen Rozinante, ñañuren bat asiko zalakoan tronpet-adarra joaz deika, zalduna eldu zala gaztelura. Baiña luzatzen zutela ikusirik, eta presa eta larria zuala Rozinantez zalditegira sartzeko, bentako ate-ondoraiño urbildu zan; an ikusi zituan bi neska lasaizale aiek, antxe zeuden; bi neska gazte eder iruditu zitzaizkion, edo bi dama zoragarri gazteluko atarian egurasten zeudenak.

Ara, eta une artantxe txerrizai bat, bere zerri-taldea sastraka tartetik bilduz zebillena; onek bada dei adarra jo zuan, dei ortara biltzen bait dira aiek; eta, bertatik agertu zitzaion Don Kijoteri ainbeste desiratzen zuana, ñañuren batek etorreraren deia ematea alegia; onela bada, pozez zoraturik eldu zan bentaraiño eta damatxo aiengana; auek, tankera artan armaturiko gizon bat zetorkiela ikusirik lantza, adarga eta guzi, izu-izu eginda benta barrura zijoazen; baiña, aien igeska-leia izua zala antz emanik Don Kijotek, bere aurpegi iarra eta autsez betea agerturik, onela esan zien dotore aski eta geldiro:

— Ez bezate iges egin beroriek, ez eta ezeren beldurrik izan; olakorik ez dagokio nik artu dudan Zaldun legeari, iñori kalte egitea alegia, eta areago noski, beroeiek, ageri dutenez, ain neskatxa aundikiak izanik.

Begira zegozkion neskamotz aiek, nondik nola aurpegia ikusiko, biseratzar arekin estalia bait zeukan; eta, «neska gazte» deitura entzun ondorean farrari ezin eutsi izan zioten; eta ain ala ere, Don Kijote erabat lotsatu egin zan, eta onela mintzatu zitzaien:

— Ederrari egoki datorkio ba neurri zintzoa, eta txorakeri utsa da ezer gutxigatik far egitea; baiña ez diet olakorik esaten beroriek lotsarazi edo minberatzeagatik; nere naia, beroriei serbitzea besterik ez bait da.



Onelako izketa ulerteziñak eta alako gure zaldunaren itxura txarrak gero-ta far geiago egiñerazten zien andere aiei; eta bera, gero-ta aserreago; oso aurrera pasako zan noski, une artantxe bentaria agertu ez bazan, gizen-gizena izaki eta gizon paketsua zana; onek, alako itxuragabea ikusirik eta ain arma desberdiñez jantzia, deus gutxi falta izan zuan neskatxekin batera far algarka asteko. Baiña, ainbeste arma tresnez beldurtuta, onez onean mintzatzea erabaki zuan, eta onela esan zion:

— Berori, zaldun jauna, ostatu billa badator, etzangua ez beste gaiñerako guzia ugari eta oparo izango du bertan.

Ikusiz Don Kijotek gazteluko alkaidearen apaltasuna, ala erantzun zion:

— Neretzat, gaztelu-nagusi, edozer aski da; izan ere «armak dira nere soiñeko; burruka egitea, nere atsedan».

Ostalariari zera gogoratu zitzaion, «gaztelu-nagusi» deitze orrek bazuala andik arakoa: Kastillako zintzo oietakotzat artu zuala, andaluzaz bazan ere eta Sanlukarko Ondartza oietakoa, ikasle edo paje bezain gaizto-biurria; eta onela erantzun zion:

— Ori orrela bada, «arkaitz gogorrek izango dira berorren zat o, eta berorren loa, erne egotea»; eta orrela izanik, jeitxi leike lasai; gau batean ez ezik, urte guzian loa galerazteko gertaerak izango bait ditu txabola ontan.

Au esanda, Don Kijoterengana joan zan, estriboari eustera; nekez eta eziñean jeitsi zan au, egun guzia baraurik pasatakoak oi duan bezela.

Bere zaldiari arretaz kontu egiteko esan zion ostalariari, izan ere munduan ez zan beste bat ain onik, ogia jaten zuanik. Begiratu zion bai bentariak, baiña ez zitzaion Don Kijotek zion bezain ona iruditu, ez eta erdirik ere; eta bear bezela zalditegian utzita, ea etxelagunak zerbait agintzen ote zion itzuli zan; neska gazteak soiñetik armak erantzten ari zitzaizkion eta, bular eta bizkar gaiñekoa erantzi zioten bai, baiña iñolaz ezin kendu izan zioten zelata-zatar ura; lokarri orlegiz lotua zekarren, eta ebaki egin bearke ziran, korapilloak ezin askatuta; berak, baiña, ez zuan ortarako baimenik eman; eta orrela gau oso-osea zelata jarria zuala igaro zuan; asmatu litekean itxurarik politena eta ikusi gabea, ba zan uraxe! Eta armak erantzi bitartean onela esan zien grazi ederrean, ontan ari zitzaizkion aiei; batetik bestera oi dutenak izakita, uste bait zuan gaztelu artako aundizkien andere eta damak zirala:

— Sekulan ezta zaldunik izan
dama-eskuz ain serbitua
nola Don Kijote bere erritik
onuntz zanean bildua:
neskatxek goxo lagun berari
eta printzesek zaldiari.



O Rozinante!, orixe bait da bere izena, nere zaldiaren etxeko-andreok, eta Mantxako Don Kijote, nerea: ez nuke nor naizenik agertu nai, aalik eta zuen alde eta serbitzuan egindako ekintzek agertuko nauten arte; ara bada, Lanzaroteren kopla zaar ori nere oraingo asmoetara ekarri naiak, onetxek nere izena alde aurretik jakiñerazi dizue; baiña etorriko da garaia, beroriek aginduta nik obedituko dudana, eta zuen serbitzurako nere gogoia, beso-indar onek azalduko duana.



Itzik ez zioten erantzuten neskamotz aiek, ez bait zeuden oituak tankera ontako argudiotan; auxe bakarrik galdetu zioten, ea zerbait jateko gogorik ote zuan.

— Edozer noski, jango nuke —erantzun Don Kijotek— ortaraxe bait nago, nere ustez, egon ere.

Zorionez, ostirala zan pare-parean, eta arrai-zati batzuk besterik ez zan benta-etxe guzian; Kastilla aldean «abadejo» deitzen diote, Andaluzian «bakallao», beste leku batzutan «kuradillo» eta zenbaitetan «trutxuela» (amurrai txikia). Amurrai txikirik jango ote zukean galde-egin zioten; beste arrairik ez bait zuten eskeintzeko.

— Amurrai txiki asko badira, amurrai aundi batek aiña izango dute; berdin bait zait ogei erreal banan-banaka edo ogerleko batean. Areago eta amurrai txikiekin gerta bait liteke beste-okin bezela, beia baiño obea txala, eta antxumea, akerra baiño. Eta, dana dala, ekarri lenbaitlen, armak duten pisua eta nekea ezin eraman bait daitezke sabela gobernatzeke.

Etxeko atarian jarri zioten maaia freskuragatik, eta ekarri zion bentariak bakallao artatik puska bat, uretan gutxi beratua eta gaizki egosia, eta ogia bere armak bezain beltza eta lizundua; benetan parragarria zan jaten ikustea; izan ere zelata kaskuan eta bisera gora jaso bait zeuzkan eta onela ezin ba bere eskuz ezertxo ere aora eraman, bestek eman eta sartu egiten ez bazion; serbitzu ontantxe ari zan bada andere aietako bat. Baiña edanerazten asi ziranean, ezin iñolaz ere, ezingo zuten noski baldin-eta bentariak kañabera-xotx bat zulatu ez balu; mutur bat aoan jarrita bestetik ardoa isurtzen bait zion; eta au guzia pazientzi osoan eramaten zuan, zelata-lokarriak ez austeagatik. Ontan ari zirala, or dator zerri zikiratzaille bat bentara; eldu ta bereala, lau-bost aldiz jo zuan txistu kañaberazkoa. Auxe aski izan zan Don Kijote bere usteetan sendotzeko, gaztelu famaturen batean zegoala alegia, eta musika joaz ari zitzaizkiola serbitzen; eta ogia, gari zurizkoa, eta emagalduek, damak zirala; eta bentaria, gazteluko nagusi jauna zala. Au dana zalata, ongi txit ongi zerizkien bere erabakiari ta irterari. Zerak, baiña, geiengeiena mintzen zuan: zaldun-armak artezke egoteak; ezin zitekeala uste bait zuan, burruka-arriskueta lege onez sartu, Zaldungo-Ordena artu gabe, bera oraindik zegoan bezela.



MAITEAK ERRAN ZERAUTAN

Maiteak erran zerautan
polit nintzanez...
Poli-polit nintzala, bainan
larrua beltz, larrua beltz.

Maiteak erran zerautan
primu nintzanez...
Primu, primu nintzala, bainan
etxerik ez, etxerik ez.

Maiteak erran zerautan
moltsa bauenez...
Moltsa, moltsa banuela, bainan
dirurik ez, dirurik ez.

Maiteak erran zerautan
lanean nakianez...
Lanean, lanean nakiala, bainan
gogorik ez, gogorik ez



TXITXEN ITZA

Gaztelera CHICEN idazten duten arren, TXITXEN idatziko degu emen. Alde askotatik ain arrotz zaigun Mexiko aundiaren ego-aldean bizi izan ziran maiatarrak, gaztelera «los mayas» deituak. Ain zuzen K.a. lau mendez eta K.o. beste bost mendez lurralde aundira zabaldu ziran, Tabasko eta Txiapas lurraldeak Mexiko barnean eta gaiñera Guatemala ta Honduras gaurko estaduak artzeraiño.


Ikusi gabe sinistea zail gertatzen dan bezain eraikintza aundi ta bikaiñak, arrigarriak jaso zituzten aldi aietan, aberastasunen, buru argien eta jakinduri sakonen ondorioz eta frututzat. Orra ordea gauza bitxia: K. o. sei garren mendean, eraikintza ta jaueretxe ikusgarriak utzirik, goruntz bildu ziran, Yukatan lurraldean kokatzeko soil-soillik. Zer zala-ta? Ezin asmatu du iñork, zergatik jo zuten goruntz. Lurraren emankortasuna agortu zitzaielako? Izan ere, tresna ta lanbide oso atzeratuak bait zituzten lurgintzarako. Giroa zearo aldatu zitzaielako? Izurrite galgarriren batek jo zitualako? Or daude galderak zutik, erantzunen zai.

Lurralde ontan aurkitu dituzte gutxienez eun eta ogei ta amar jaueretxe ta eraikuntza bikain; eta oietako gutxi batzuk sakonki aztertu izanak, bereala sortarazi du arrimenezko aitorpen au: «Mundu Berriko Grezia», Atenas uriburuko Akropolis gogorazten bait zien ango aunditasunak. Baiña batez ere Yukatan lurraldearen erdiko «jaueretxeen uria» esaten dioten Txitxen Itzá ikusteak dakar arridurarik aundiena, alakoxea bait da.

Lurralde berria askoz legorragoa zuten eta ingurua oian basatiz estalia. Orregatik eraiki zituzten beren lanak ain zuzen ere iturri emankorren inguruetan. Nolerebait uriburu bezala zuten Txitxen Itzá, eta oso urruti gabe eraiki zituzten Uxmail eta Mayapan erlijio-toki bereziak, leen utzi zituztenak bezain aundikiro eraiki ere.

Alako eraikintzak ikustean, Arnold Toynbee jakintsuak zera uste izan zuan: lurralde zabal ongi landuen eta jendetza aundiak bizi ziran tokien erdian egongo zala Txitxen Itzá. Baiña bestela izan zala argibidetu dute ikertzailleek: aundizkien eta agintarien bizileku ta erlijio-gurketarako jaueretxe izan zirala alegia, eta gaiñerako jendeak andik kanporago bizi zirala nola-alako txaboletan. Eta ez omen ziran gutxi beren erlijio-giroa zaintzen zuten apaiz-saillekoak ere bitizoki ikusgarri aietan.

Hernán Cortés bere lagun espainiarrekin Yukatan lurraldera sartu zanean —1517-1519 urteetan noski—, ordurako lur jota zegoan Txitxen Itzá, ondakiñak besterik ageri ez zalarik zabalera aundian. Eta ondakiñak ia estalirik zeuzkan oianak bere zugaitzez eta sasiz. Oraintsu eun urte dirala sortu zan eraikintza aiekiko jakin-min bizia, eta artatik sortu zan ardura aundia ere, oianaren menpetik atera ta ostera egiñaalean ber-erikitzeke.



4



An aietako aztarnak aztertuz eta ikasiz, idazkunak eta ikurak ezagutze-
ra iritxi ziran, gauza asko ulertze bai beintzat, guzti-guztien esanaia lortu
ez ba zuten ere. Besteak beste, urte osoko ta urteetako egutegi guztiz zeatza
izan zutenik, ez dago ukatzerik. Eta, Itxurak diranez, garai aietako apaizen
esku zeuden egutegiaren eta egun egokien zeaztasunak eta erabakiak, gaiñe-
rako beste jendeek edozer egingo baldin ba zuten.

Gure oraingo aste ta illabeteen antzeratsu banaturik zeuzkaten beren ga-
raiak, eta aiekiko gora-beera guztiak apaizen esku ornere zeuden, nolerabait
jainko-kutsuz inguraturik zeuzkatenez. Gauza oso arrigarria da, noski, arti-
zar edo goiz-izar dalakoaren ibillerak zein zeazki ezagutzen zituzten jaki-
tea; eguzki-illuntzeak alde aurretik zein ederki igertzen zituzten ikustea
ere arrigarri da.



Ortziko gauzen arazoetan ain aurreratu ziranak, lurgintzan ez ziran ain aurrerakoi, ez kurpilla, ez goldea ta ez burni-aga erabiltzen ez bait zekiten, artean asmatu ez zituztenez.

Ikerlariek aurkitu dutenez, maiatarren eraikintzetan beste batzuen eragin aundia ageri da: toltেকatar gudazaleen ikutu sakona ain zuzen ere. Onela, maiatarrek beren uren jainkoak baztertu ez ba zituzten ere, indar aundia eman zioten besteen Ketzalkoatl jainkoari.

Txitxen Itzá inguru-mariko eraikintza nagusiak aipatzeko, ondorengo aukerak beintzat gogoan artzekoak dira. «Gaztelua» deitua da bata, aldi berean «Piramidea» ere deitua bere tankera dala-ta: Kukulkan jainkoari eskeiñia zan. Irudi bi aurkitu zituzten barnean, etzanda bezala dagoan «Txakmool» eta jaguar erako aulkia. «Gudarien jauretzea» deitua da bestea, inguru osoan «Milla Zutarri» dituana. Eguzki ta izarren ibillerak aztertzeke egiñik zuten eraikintza borobilla urrena, barneko armaillak ere borobillean zitualako «Barrekurkuillu» edo gaztelerazko «Caracol» deitua. Emen ornen zuten pelotatokia ere beren erako pelota-jokuren batzuk egiteke.

Inguru-mari berean da iturri guztiz aundia ere, borobillean eratua, nolabait ere beren erlijio-betekizunetarako. Jainkoaren babesa lortzeko asmoz, pitxiak, izkilluak eta intzetsua ez-ezik, apainduriko neskaxaren bat ere jaurtitzeko omen zuten uretara. Garrantzi aundia bait zuan urak, oraindik oraingo maiatar erakuslearen itzek ala aitortzen dute: «Ez ura —ez artoa— ez bizia». Nork izan lezakean egunen batean Txitxen Itzá bere begiz bertatik bertara ikusteko zoria!

OTSOKOAREN GOSEA

Otsoko, otso zaarraren umea zen: asieran beldurra sartua zioten aita-amek eta ez zan ausartzen bizi ziran leize aunditik ateratzen. Baiña denbora pasa aala, beldur ori galtzen zijoan.

Alako batean, beste askotan bezala, argisentian esnatu eta, eguraldi ona zetorrela ikustean, besoak aal zuen guztia luzatuz, aozabalka asi zan, pozez, Otsoko:

— Gauza ederra da eguraldi ona, —esan zuan bere baitan—. Jatekorik izango da bazterretan nere gose au asetzeko.

Kobazulotik atera orduko, bidexka bat arturik, artzai txabola batera iritsi zan. Uriñez betetako zerri maskuria zegoen ate ondoan zintzilika, ortzak erraz sartzeko eran.

— Asiera ona! Besterik ezean, banuke emen zer jana.

Gosari arrunta iruditurik, begira-begira egon ondoren, aragi billa joatea erabaki zuan.

«Urin-aseak logurea ekarriko dit goizetik, —zioan bere barruan—. Noan aurrera beste zerbaiten billa».

Badijoa bidez-bide basoan eta, alako batez, zerri-ama aundi bat zazpi edo zortzi ume politekin bere aurrera:

— Nereak zerate, —esan zien Otsokok—. Ez mugi!

— Zer egin nai dek? —galdetu zion zerri-amak.

— Zerri goseak, ezkurra amets, eta otsoak zer? Bizitzako legea. Jan egin bear zaituztet, jan!

— Lokatzetan ibilli berri gaituk eta loiez beterik gaudek. Itxura onetan guri ortzak sartzerik ez dek, noski, buruan pasako. Besterik dek jaki garbiaren gustua! Eraman gaitzak aurrena erreka bazterrera eta garbitu. Ez al dek ala?

«Lana da baiña, ez da gaizki esana» —zioan berekiko Otsokok.

Badijoaz elkarrekin ibaira, eta zerrikume potolo gizenenari bota zion bi-dean begia. Ur-ertzer a ristean, ankatik eldu zion, eta umea kurrinkaz eta negarrez asi zan. Otsokoaren atzean zetorren zerri-amak orduan, muturrez aurrera bota zuan Otsoko uretara, eta itto-zorian, larri utzirik, iges egin zuan amak bere umeekin. Gero amorrazioz negar egin zuan Otsokok:

«Ederki egiña! —pentsatu zuen—. Nork sartu nau ni garbitzaille zerrikumeen lokatza kentzera?».

Naigabea ezeztatzeko denborarik eman gabe, beor bat ikusi zuan bere poé ttoka jaio-berriari titia ematen eta begiak argitu zitzaizkion.

— Eup! —oiu egin zien—. Nereak zerate. Egon or!

— Ez aiz nerekin sartuko! —esan zion beorrak—. Erdiberri eta gaixorik negok. A zer aragia nerea!



— Baden umetxoa!!! Oraingoz aski diñat ori. Gero gizenduko aiz i.

— Jan ezak, nai badek; baiña nere umetxoaren eriotza ez ikusteko, nora-bait iges egin nai diat emendik. Arantza txar bat badiat azkazalean sartua eta atera ezaidak mesedez.

— Ori bai.

Etzaten da beorra luze-luze lurrean eta or dijoa Otsoko ortzez arantza ateratzera. Beorak ostiko bat eman zion muturrean eta, ortzak autsirik, odola zeriola utzi zuan garraxika. Bitartean, beorak eta pottokak alde egin zuten andik.

Otsokok onela esan zuan garraztasun samiñetan:

— Au ere merezia nuan. Nork egin nau ni albaiteru beorrari arantza kentzen asteko?

Bideari jarraituz eta goizeko gosea berekin zuala, auntz zaar bat ikusi zuan:



— Jan bear aunat —esan zion—.

— Ire ortzak ez dituk on ni larrutzeko. Ez al dek ikusten ezur uts naizela? Otsoko aotik odola zeriola zebillen eta besoarekin muturra garbituz, kon-turatu zan ezin zuala ortzez indar aundirik egin.

— Bigun ala gogor, aalegiñak egin bear dizkiñat. Goseak ez din barkatzen.

— Obe dek nere antxumea jatea.

— Ori izango banu!

— Ortxe zegok errotako estalpean.

— Joan adi eta ekar ezaidan.

— Etorri adi i nerekin.

Errotako txakurraren beldur zan Otsoko, eta ez zuan joan nai. Bera joa-teko agindu zion auntzari. Ori nai zuan auntzak! Ez da otsoko gaurdaiño itzuli.

Etsirik, kobazulora sartzean, begirada bat atzera bota, eta onela esan zuan:

— Goizeko maskuri-uriñak illunduko ninduala? Argitu ezbalu obe zan. Zerrikumeak zeuden eran jan banitu... sendagintza utzi-ta, pottoka artu banu... edo auntza larrutu... ez nintzan orain goserik egongo. Galduz ikasten da.

EVERESTEKO JEITSIERA

Ez zait iruditzen Everest danik; beste edozein gaillur bezalakoa zait. Poz berdiña. Bear bada, zaillago izan zaidalako, beste poz bat sentitu det: gogorra izan da emozioa, gogorra izan bait zaigu mendia.

Oxigeno faltak ere bereak ba ditu; nekatuago sentitzen naiz, lasaiago ere bai eta, pentsatu, ez det bear bezala pentsatzen.

Iru ordu-laurden egin ditugu gaillurrean. Laiñoturik dago. Pena da emendik ezer ez ikustea. Nekaturik gaude, baiña, gaillurrean gaudenez, lasai. Oartu gabe pasa zaigu denbora emen goian.

Elurrak aurpegiari jotzen nau: aspalditik ari du, baiña orain oartu naiz.

Emendik mugitzeko... beera abiatzeko leen bait leen... ari zaizkigu beekoak irratitik esaka. Pasang lagunak, ordea, irratia bere kontura artu eta sekulako denbora-pilloa pasa du sirdarra eta beste xerpekin izketan.

Argazkiak egin eta zerbait filmatzeko naiko beta izan det bienbitartean.

Azkenean, artu degu beerako bidea. Ertzean aurrera goazela, Hillary Espoloiara eldu baiña leen, irristatu eta maldan beera amildu zait Pasang, arkaitz batzuren kontra geldituz. Ertzeraiño igotzen lagundu diot berriro. Asko beldurtu du susto onek; nekatu eta urduri dagoela ikusten det; beraz, sokaz ziurtatu det jeixten laguntzeko. Aurreraxeago, oxigenoa bukatu zaiola konturatu naiz, botilla kendu diot eta Tibet aldera bota det. Espoloia jeitsi deguean, neuri ere bukatu egin zait oxigenoa.

Elkarri loturik goaz aurrera. Pasang aurreraxeago doa, bizkar batek izkututzen dit bistatik. Alako batez garraxi bat eta sokaren tiradizo bortitza ondoren, eta pentsatu det: «erori dek orain ere». Pioletetarik bat sartu det sendo elurretan, oni lotu Pasangen soka eta beste pioletaz lagundurik, bizkar atzean zer gertatu den ikustera joan naiz. Bosten bat metro beeraxeago dago: kornisa autsi zaio oin azpian eta zintzilik geratu da iru milla eta bosteunen bat metroko utsunean dilindan. Oso urduri dago gizona.

«Au atera bearra zegok emendik, kosta ala kosta».

Egia esan, onako ontan ere ez det asko pentsatu; beste nonbait, agian, okerragoak etorriko zitzaizkidan burura. Dena normala iruditzen zait.

Autsitako kornisa-ertzera urreratu (ez zait burutik ere pasa kornisa berriro autsi daitekeenik) eta asi naiz, neke aundiz, pixkanaka-pixkanaka gora ekartzan; ertza eskumenean duanean, bera ere asi da laguntzen. Luzaro gabe gainean da. Ura lasaitasuna! Erabat jota dago Pasang, aiturik, eta, oxigeno faltaz arnasa bueltatu eziñean, erdi ittorik. Ordu-erdiren bat (luze egin zait oso) egin degu or, gizona etzanda, altxatzeko kemen izpirik gabe. Mugitu bear degula emendik bein eta berriro esan, eta azkenean altxa da; bideari lotzeko moduan gera. Bizkar bat igotzen degun bakoitzean, ordea, etzan egiten da berriro.

Tarteka zutitu eta anka txingurrituak astintzen ditut odola mugitzearren. Amarrak aldera zerua zabaldu da eta izarrak dira azaldu, oso izar aundiak. Geroxeago, oskarbi dago, izugarri oztu du. Arestian klimatologi-parteia eskatu dedanean, emen, 8.000-9.000 metro tartean, —35° Z egingo duala esan didate. Ez dirudi oso gogorra; bear bada oxigeno edo edari ttantta bat edukiz gero, normala litzateke; onela, gogorxeago izango zaigu.

Ez degu surik, izotza urtu eta te txar bat egiteko ere, ez janaririk, ez oxigenorik; deus ez. Aizea, bai, badegu ortatik, otz-otza eta nai baiño geiago; ez da orren eskaxik.

Pixkana-pixkana asi du eguna argitzen. Or beean, Makulu ari da gorri-gorri, illunpetatik irteten. Seiak alderako zearo argitu du, baiña emen geratu gera eguzkia zerbait berotzen asi arte. Naiko uste ustela, emen ez bait du eguzkiak iñoiz berotzen. Beraz, altxa eta zulotik atera gera. Eguraldi ederra degu aurrean.

Segitun konturatu naiz aiturik nagoela, zearo jana: leenbizi otzak, oxigeno eta edari faltak gero, erabat jota utzi naute; kontutan izan eguneko zortzi litro ur bear ditugula desidratazioa berdintzeko eta azkeneko 20 orduetan ez degula tantarik ere probatu. Zutik jartzean zorabiatu egiten naiz eta sekulako goragalea det; ez det, ordea, ezer botatzekorik barruan.

Irratia artu det (ibilliko ote?), ea beekoekin itzegin dezakedan; guzti onen berri eman bearra dago.

— Martin emen, Martin emen.

— Martin! Martin! Zer moduz zarete?

— Leertuta. Ia ez gaituk mugitzeko gauza. Ez zekiat... ain giaudek kemenik gabe...

— I, Martin, Martin, Garaioa emen; ez dan lekutik atera indarrak eta beera azkar. Asi jeixten eta bereala aurkituko zarete zuei laguntzera igo diran bi xerpekin.

— Ez zekiat, i... ez zekiat indarrak izango degunik.

— I, Martin, Martin! Buruko kontua dek indarrarena, Martin, buruko kontua! Ez dek indarrak galdu! Eldu goiari! Jo ezak aurrera!

Eta onela, zortziak aldera lotu gatzazkio bideari. Batak bestea ziurtatu degu leenbizi. Oso makalak dira gure lenen pausoak: makalak eta baldarrak. Amaika mozkor ibilli da gu baiño zuzenago.

Ego Lepotik gure billa atera ornen diran bi xerpen billa or ari dira gure begiak, zoraturik bezala, aiek noiz ikusiko, batera eta bestera begira; beti billa. Alako batez or ikusten ditugu, oso urrun oraindik, bi xerpak. Arratsaldeko laurak dira. Elurretan eseri gera aiei itxoegiteko asmotan. Aiek ere, gu ikustean, gelditu egin dira. «Igoko dituk», pentsatu det. Aiek ere berdin pentsatuko dute, «jeitsiko dituk», ez bait dira mugitzen.

Azkenean, gu baiño egoskorragoak dirala ikusirik, aiengana abiatzea degula onena, erabaki degu biok, jolasak alde batera utzirik. Illak bezala jeitsi gera, bizimiñak bakarrik eusten digu zutik.

Ang Nima eta Furba Kitar dira gure billa etorri diranak. Estu-estu besarkatu degu elkar; ura poza! Zer zoramena, onenbeste denbora pasa ondoren beste norbait ikustea! Auek *ere* oso nekatuta daude; ez da arritzekoa, bigarren aldía da onera igotzen dirala-eta: 8.500 metrotan gaude. Zortzi ordu bear izan ditugu 260 metro jeixteko.

Ez digute te askorik eman —basoka bana—, beroiek edan dute geiena bidean. Iñoiz ez nau iñolako edarik ain ondo artu! Oxigenoa ondoren, garrantzitsuena; sei zazpi kilo geiago dira bizkarrean, baiña merezi du ematen duen indarragatik.

Kementsuago sentitzen da orain Pasang, ariñago dabil, eta *ez* da konturutzen sekulako tiradizoak ematen dizkiola sokari, nere ibillera trabatuz; azkenean, soka askatu det eta, nai duana egiteko esan diot.

Eguzkia asi da apaltzen, eguna illuntzen. Xerpa bat eldu da nere billa. Au da poza, Nin Temba da. Te xorta bat eman dit eta motxila kendu gero. Zerbait piztu naiz onekin eta bere laguntzarekin ondo iritxi naiz karpetara. Sekulako sustoa artua izan bear zuen Lorentek atzetik soka arrastaka zuela, Pasang bakarrik zettorrela ikusi zuanean; orain, unkiturik besarkatu nau. Malakoak eta dana ixuri zaizkit.

Xerpa mordoxka eldu da Ego Lepora, zer gerta ere laguntzeko asmotan. Danen artean artu eta karpa batean sartu naute; botak eta lumiferoa kendu, zakuan sartu eta jatekoa eman didate. Dana egiten utzi diet, dana eskertu.



Zakuan sartuta, etxean bezala sentitzen naiz; zortzi milla metrotan eta etxean bezela: ziur. Leenbizikoz altura onetara eldu nintzanean, arriskua besterik ez nuan ikusten, eta aizea, otza eta oxigeno faltaren beldur nintzan; orain, berriz, etxean bezala.

Oxigenoaren maskara ezarri didate eta lo seko geratu naiz.

Egun argitan esnatu naiz, karpa eguzkiz beterik. Pozaren pozez ia gainezka egin du nere barruak. Ez det uste onelako egun argitsurik, ain ederrik, iñoiz ikusi dedanik.

Karpatik irten naizenean, zuria baiño zuriago dan argiak bildu nau; ezin det begirik zabaldu. Elur asko egin du gauzez eta elur lodiak estali du Lepoa. Ixil-ixilik dago dana.

Lepoa eta 3. kanpamendu arteko bidea oso astuna egin zaigu; ainbat elur erortzeak, gaiñera, arriskugarri biurtu du jeitsiera, baiña soka tinkoei esker, arazorik gabe iritxi gara 3. kanpamendura. Xabier eta Felipe daude emen, elkar besarkatu degu eta... zintzurra korapillatu zait, au geiegizkoa da nerezako.



Nimipossom-

al''

ITURRI AGORTUA

Ai, Iturrutxo, Iturri!
Maitale biurri!
Iturriak maite bat
ornen zun ixilik.
Bat ixillikan eta
bestea gorderik.

Ai, Iturritxo, Iturri!
Maitele biurri!
Eguzkia goizero,
an dijoa egan,
gallurretik jauzika,
aitzik aitz irristan.
Nora joango? eta
—ez iñori esan—
iturrira ixillik
maite- jolasetan.

Ai, iturritxo, Iturri!
Maitale biurri!
Eguzkiak iturrian
sarturik burua,
aren bustiz gozaten
zun bere berua.
Ain zan iturri polit!
ta ain gozo ingurua!...
Eguzkiak antxe zun
biotza lotua.
Alde egiterakoan,
gabero malkua.

Ai, Iturritxo, Iturri!
Maitale biurri!
Lizar landare gazte,
iturri-ondoan:
ezkoaren indarrez
goraka zijoan.
Nork esango? Lizarra
iturri alboan,
onen maitez zearo
galdua zegoan.



Pia Goiri

Ai, Iturritxo, Iturri!
Maitale biurri!
Euzkiari muxu ta
Lizarrari xirri.

Lizarra, eguzkia
andik kentzearren
asi da gaiñetikan
adarrak luzatzen.
Beretzat bakarrik nai
iturritxoaren
kanta txanbeliña ta
Eguzkia andik ken.

Ai, Iturritxo, Iturri!
Maitale txoroa!
Arrisku aundikoa
den ire jokoa.

Eguzkiak amorroz
lurra kixkaltzen du
Lizarra igartzeko
asmoz, gar eta su.
Baita ere azkenik
asmoa burutu,
ta Lizarrari muiña
ondotik igartu.

Baiña Lizar-ostoak
eror ziranean,
Iturria ere il zan
aiekin batean.
Ta Eguzkia pozik
biamonean,
aitzik aitz Iturrira
etorri zanean;
maiterik etzun arki
lur soil elkorrean.



NEMESIO ETXANIZ

ANTZERKIA GIZON BIKAIÑAK

Antzezleriak: Julian nagusia, Luxio morroia, Eujenio, Meliton,
Juakin bikaiñak.

I ATALA

Julian.— Jarri al uan atzo egunkarian nik agindutako iragarkia?

Luxio.— Bai jauna, ona emen bera.

Julian.— Irakurri ezaidak, ea nola ipiñi uan jakiteko.

Luxio.— «Gizon bikain bat bear da. Iñoren bildurrik gabea. Irabazi ona artuko du. Oker kalea, amabi, laugarren bizitza».

Julian.— Ederki zegok. Bada ori gaurko egunkarian agertu ba dek, laister dizkiagu emen gizon bikaiñok.

Luxio.— Ez det uste asko luzatuko dutenik. Jendeak «irabazi ona» irakurtzen duanean, danak diruaren usaira etorriko dira.

Eujenio.— (kanpotik) Eeeeeup!



Luxio.— Emen dira, nik uste baiño leen. Euliak eztira baiño azkarrago azaldu dira.

Eujenio.— (kanpotik) Eeeeeup! Ireki atea... Ez al dezute aditzen, atea irikitzeke?

Julian.— Zein ote da?

Luxio.— Astakirtenen bat.

Eujenio.— (kanpotik) Ez al da emen iñor bizi edo zer?

Luxio.— Bai motel. (Atea irekirik) (Eujenio sartzen da) Eta ixilik egon adi.

Eujenio.— Egunon jaunak... Bildurrik gabeko gizona, zuek bear al dezute?

Luxio.— Bai, guk bear degu. Au da etxeko jabea.

Julian.— Itxura txarrik ez dezu, baiña... zuk ezeren bildurrik ez ote dezu?

Eujenio.— Nik bildurrik? Ezta inpernuko etsai berarenik ere... Gaiñera zuek ondo ordainduko didazute. Ez al da ala?

Julian.— Ori bai. Etxe ontan morroiek asko irabazten dute... Baiña... bildurrik gabeak baldin ba dira... Bildurtirik ez degu nai emen.

Eujenio.— Ala bear da. Bildurriak ezertarako ere ez dira. Ni, ordea gizon bikaiña naiz...

Luxio.— Ala izango zera, baiña... etxe ontan gelditu baiño leen, probatu egin bear zaitugu.

Eujenio.— Nai dezuten bezela. Prest nago... Zer egin bear det?

Julian.— Ba... etxe ontan zoro bat daukagu... eta gauaz beti exkopeta eta labain aundi batekin jekitzen da, eta gela ontara etortzen... Zu egongo al ziñake emen, illarena egiten, geldi, geldi, kanposantuko bat bezela?

Eujenio.— Ori al da proba guztia? Besterik ez? A, nolako gauza!!!

Julian.— Bai?... Baiña, bildurrez pixka bat mugitzen bazera, ez zaitugu artuko.

Eujenio.— Ni lasai asko egongo naiz, benetako illa banintz bezela.

Julian.— Ondo dago... Orain kalera joan zaite, eta etorri arratsaldeko zortzirak aldera.

Eujenio.— Zortzirak puntu-puntuan emen izango naiz. Agur (irten bedi).

Luxio.— Au bildurtuko degula uste det.

Julian.— Itxura latzeko mutilla dek, gero, Luxio.

Luxio.— Itxura eta itza franko, baiña ortik gora...

Meliton.— (kanpotik) Arratsalde on, jaunak.

Luxio.— Emen degu beste erbi bat. (atea zabaltzen dio).

Meliton.— (arro, arro) Bildurrik gabekoak mundu osoan bi bakarrik gera: Inpernuko etsaia, eta Meliton Larrubeltza. (Bere burua izendatuz).

Luxio.— I? I... bildurti galanta, bai.

Meliton.— Ni bildurtia? Jotzen ba zaitut muturrean...

Julian.— Tira, pakean egon...

Meliton.— Neri bildurti deitzen didatenak, muturrean jo ta aizea egostera bidaltzen ditut...



Julian.— Baiña... etxe ontan sartu nai ba dek, lenengo, probatu egin bear augu.

Meliton.— Nai dezun bezela.

Luxio.— Etxe ontan gizon bat ilda zegok. Zaituko al dek ik illa gauaz?

Meliton.— Zaituko ez det ba? Makiña bat gauza aundiagoak egiñak gaude.

Luxio.— Baiña argi gutxitan egon bearko dek.

Meliton.— Bai, bai, bai... Nik botella bat ardo naikoa det illunpean argi jartzeko.

Julian.— Mutil bikaiña aiz... Orain oa, eta etorri adi zortzi ta erdietan edo, gutxi gora-beera.

Meliton.— Ondo dago. (Badijoa kanpora).

Luxio.— Au kankallu zaarra. Ia, ia, jo nindun. Auek borrokan dana konpontzen dala uste dute.

Julian.— Kanpotik arroenak, barrenetik bildurtienak geienetan... Arrokeria izaten dek askotan bildurra ezkutatzeko kapa ederra.

Luxio.— Ba liteke... Gaur gauean ikusiko degu...

Juakin.— Kaxo! (kanpotik) (Gero sartzen da) Bildurrik gabekoa, emen bear al da? Baietz? Emen dago, ba, gizon bikain bat iñori eta ezeri bildurrik ez diona.

Luxio.— Ik egin dekan astakeriarik aundiena, zer izan dek, ba?

Juakin.— Arroa bat makallu jan exeri aldi batean.

Luxio.— Ez aiz i merkea.

Juakin.— Eta emen, zer egin bear det? Zenbat gizon akabatu bear ditut eskopetaz edo urkatuz?... Zeñekin egin bear det borrokan, edo, zer geiago egin bear da? Astakeriaren bat egiteko gogo aundia daukat.

Julian.— Etxe ontan gizon bat il dek. Illa zaintzeko gauaz, bikaiña dala esaten duan gizon bat etorri dek... Baiña oso bildurtia dek... Ik auxe egin bear dek: Inpernuko etsaia bezela jantzi, eta illa zaintzen dagoan arroari egundoko sustoa eman...

Juakin.— Jupi!!! Neri orixe gustatzen!!! ta besterik ez?

Luxio.— Ezer ez. Orain artu itzak liburu auek eta gela ortan sartu adi. (Gelan sartuko da).



II ATALA

(Leengo gela bera, baiña illun xamar, bi kandelaz argiturik. Mai bat).

Eujenio.— Gaueko amaika t'erdia dira, eta oraindik ez dek azaldu gauaz jeikitzen dan zoro ori. Etzan eta lo egingo diat.

(Etzan egiten da, baiña ezin da geldi egon).

Nik bildurrik ez zeukat... Baiña maai au gogorra zioek eta ezin nauk geldi egon. (Pausoak entzuten dira) Baten bat ba zetorrek. Bada ez bada ere, geldi egongo nauk. Zoro bat ornen dek eta...

(Maiaren gainean ilda bezela etzaten da)

Meliton.— (Sartuaz). Emen ziok au, eta ondo illa gainera... (Bildurrez ikara-ikara). Baiña nik ezereen bildurrik ez diat... Baiña... Eta zer egin bear diat nik emen gau osoan? Ildako au jeikiko balitz, nere bildurra ez ukek makala izango... Uiiii!!! (izu planta egiñez). Baiña... ildakoa nola jeikiko dek ba? Lo egitea onena, ardo tragutxo bat edanda. (Edan eta ildakoaren oiñetan burua makurtuko du).

Eujenio.— Ardo-usaia somatzen diat. Onek ekarri ote du? (Jeikiko da pixka bat).

Meliton.— Au mugitu egin dala iruditu zaidak... Zer txorakeria, gero!! Ildakoa nola mugituko dek, ba? Beste ardo pixka bat edan eta lo egin dezagun lasai.

Eujenio.— Zoro au ez dek makala. Ondo zaintzen dik bere burua, alajaiña! Ardo ta guzti. Ea zerbait edaten dedan. (Jeikiko da pixka bat).

Meliton.— Baiño berriz ere au mugitu egin dala esango nitek. Baiña au txorakeria nerea! Nola mugitu litekek ondo illa ba dago? Begiratu egingo ziot. (Kandela bat artu eta aurpegira begiratuko dio). Au ondo ilda zegok. Bai orixe! (Berriz ere bildur plantak egiñez). Au nere bildurra!!! Baiña... Zer bildur eta zer aitzur... Nik ez det iñoren bildurrik. Edan eta lo!!! (Edan du).



Eujenio.— Oraingoan zerbait edan bear diat. Zoro onek bukatu baiño leen. (Anka batekin botella joko du eta lurrera botako).

Meliton.— E? Zer dek au? Milla deabru eta bat geiago!! Ildakoa mugitu egin dek, bai. Botella, berak bota dik. Ai ene! (Kanpora alde egiten asiko da, baiña ate artatik sartuko da Juakin deabruz jantzita).

Juakin.— Bildurti zaar ori. Ez aiz emendik joango, ez. Uuuu!!! Neuk eramango aut! Uuuuu!!!

Eujenio.— Inpernuko galtza gorri. Lagundu! Lagundu!

Meliton.— (Jeikirik) Nun da inpernuko galtza-gorri ori. Nun da? (Guztiz bildurtuta) Ai, ene! ai, ene!!!

Juakin.— Ene, bada! Ildakoa piztu da. Ai!! Ni ez naiz inpernuko galtza-gorri. Barkatu. (Irurak maiari biraka).

Eujenio.— Ez. Nigana ez zaitez etorri!!! (Illarengana dijoa).

Meliton.— Ez nazazula jo! (Juakinengana dijoa).

Juakin.— Barkatu, jauna, barkatu. Ez nazazu ikutu. (Irurak alkarri). Barkatu, barkatu. Pakean bizi gaitezen.



Luxio.— (Sartuko da). Zuek al ziñaten bildurrik gabeko gizon bikaiñak? Arrokeria bai, eta ao aundia ugari. Baiña garaia etorri danean, oilloak baiño bildurtiago. Katakumeak! alde egin ezazute emendik!

Julian.— (Sartuko da). Bai, anka emendik, eta laister egin ere. Bildurtien bearrik ez degu.

Luxiok edo Julianek. (Abestuaz, edozein bertsolariren doiñuz).

Gure gizonak, gizon bikaiñak,
Arrokeria ugari.
Baiña garaia eldu danean
azaldu dira bildurti.
Makinatxo bat onelakoak
munduan dira ageri.
Itzetan, jaunak, ez fiatu ta,
begira egiteari.

ZAPIA BEERA

BILINTX

Indalezio Bizkarrondo «Bilintx», Donostian jaio zan, eta beti Donostian bizi, arotz-lanetan.

Astialedietan bertsoak asmatzea oso atsegin zitzaion, baita maite-bertsoak eta ziri-bertsoak makiña bat egin ere.

Ziria sartzen, bertsolari zorrotza zan.

Azkeneko karlista gudan, auek jaurtitako kañoi-bala batek bi zangoak moztu zizkion.

Donostian bertan il zan 1867garren urtean, 45 urte zituala.

Mando baten gaiñian
Domingo Kanpaiña:
ez dijoa utsikan
asto orren gaiña,
azpian dijuana
mandua da baiña,
gaiñekua ere bada
azpikua aiña:
mando baten gaiñian
bestia alajaiña!



ESKAILLERA

Erri illak asko gustatzen zaizkit. Orregatik, sarritan joaten nintzan Nafarroako erri isil eta otz artara.

Ez zekien inork noiz utzi zuen Landotz erria bertako azken bizilagunak. Geroztik Landotzeko kaleetan ibiltzen zan bizilagun bakarra, aizea zan. Aize otza eta gorria.

Kotxea artu eta Landotzera abiatu nintzan. Azken bost kilometroak oiñez egin bear izan nituan. Azkenean, an urrunean, Landotzeko kanpandorrea ikusi nuan. Arrizko dorre bat zan. Erria ia ezereztaturik zegoan. Baiña dorrea an zegoan zutik, izugarrizko bakardade aren zaindari bezala. Landotzeko dorre arek errespetua sartzan zidan gorputz osoan.

Eldu nintzan errira. Txori beltz bat pasatu zan garraxika nire buru gaiñetik, eta dorrearen leio batetik sartu zan. Gero, bere zulotik begiratu zidan, arriturik bezala. Erri ii onetan zear itzuli bat egin ondoren, dorrerantz joan nintzan. Argazki batzuk atera nituan. Dorreak ate bat zeukan, eta atearan gaiñean arrizko lauburu antzeko irudi bat. Lauburuari lauzpabost argazki egin nizkion. Gero atez barnera sartu nintzan.

Barrua oso illun zegoan. Lenengotik ez nuan ezer ikusten. Gero iluntasunera oitu ziran begiak; eta, or an emen, argi batzuk ikusten asi nintzan. Kanporantz begiratu nuan, eta eliza zaarrear ormak ikusi nituan, ia osorik lurrrera eroriak. Berriro dorre barrura begiratu nuan, eta beste atetxo batetik aurrera neure bidea segitu nuan.

Marraskillo eskaillera baten lenen maillak ikusi nituan; eta, jakinmiñak jota, gorantz joaten asi nintzan. Eskaillera, guztiz sendoa zan. Maillak bus-tita zeuden, eta batzuk oso gastatuta. Une batez, neure igoerari uzteko go-goa etorri zitzaidan; baiña gero aurrera segitu nuan. «Goi-goitik ondo ikusiko det erri osoa, eta argazki pare bat ere egingo ditut» pentsatu nuan. Bost miñutuz, eskailleretan gora lasaiki igo nintzan. Gutxienez laurogei mailla gainditu nituan. «Gutxi falta da» esan nion neure buruari, «aurrera, ba!».

Beste bost miñututan, gora eta gora igo nintzan. Atsedean artzeko gelditu nintzan. «Arraioa! Dorre onek, ain garaia zenik ez zuen ematen!» pentsatu nuan, gutxienez eun eta berrogei mailla garaitu nituala kalkulatu. Ala ere, aurrera jarraitu nuan bost miñutuz... eta beste amar miñutuz... «Zer da au? Noraiño doa eskaillera au?». Berriro kalkulu bat egin, eta, laureun mailla goraka egin nituala jabetzean, ura ez zala posible pentsatu nuan. Aurrerantz begiratu, eta eskaillera itzulika-itzulika gorantz zijoa ikusi nuan.

Zer egin? Leiatilla estu batetik kanporantz begiratu, ez nuan ezer ikusi, zeruaren urdiña baiño. Berriro indarra artu nuan, eta, orain presaka, beste eun mailla gainditu nituan. Gelditu egin nintzan berriro, izerditan. Nere aurrean maillek gorantz segitzen zuten. Une artan, beldurra sartu zitzaidan.

Ez nuan ura ulertzen. Beldurra, jakinmiña baiño aundiagoa biurtu zan; eta gorantz egindako seireun maillak beerantz egin nituan. Arin-arin egin ere! Dorre artatik irteteko, izugarrizko gogoa neukan.

Gogorrena orduan gertatu zan. Seireun mailla jetxi ondoren, ez nuan irtenbiderik aurkitu. Zazpireun... zortzireun mailla..., eta ezer ere ez. Erlojuari bigeratu nion. Ogei ta bost miñutuz arin arinka jetxi ondoren, aterik ez nuan aurkitzen.

«Eeeuuup» oiukatu nuan iru aldiz. Ez dakit zertarako. Nere oivak eskailleraren mailletan itsatsita bezala gelditu ziran, illik bezala. Leiatilla estuetatik begiratzen nuan, eta kanpoan illuntzen asia zela ikusi nuan.

Zangoek dardar egiten zidaten. «Nun ote dago atea? Nun irten-bidea? Zer da au, zer da au!». Gorantz jo nuan berriro, atearen billa. Konturatu



gabe, atea atzean utzi nuan nonbait. Banekian, ori ez zitekeala, leioetatik argi txepel bat ikusten nuan-eta. Atea atzean egon balitz, eskaillerak lur azpian segitu bearko zukean.

Milla aldiz egin nuan estropozu mailletan. Nere belauak odoletan zeuden, eta zangoak oso nekaturik. Baiña irtenbidea leenbaitleen aurkitu bear nuan. Ez nuan il gura eskaillera artan, mundutik urrun, erri ii bateko dorre madarikatu baten barruan.


Gau osoan ibilli nintzan gora eta beera, orma aiek kolpez jotzen, ate bila. Gose nintzan. Nekaturik nengoan. Egarrri nintzan. Beldur nintzan.

Goiz-argia berriro agertu zan. Esperantza berriro piztu zitzaidan. Baina, egun osoan gora eta beera ibilli ostean, itxaropena betiko galdu nuan. Gauean mailla batetan eseri nintzan, eta lo gelditu.

Zilipurdika eskailleretan beera erori nintzanean esnatu nintzan. Erori eta erori segitu nuan. Berdin zan neretzat. Erori eta erori beerantz. Orrela, ez dakit zenbat denbora. Eta, azkenean, nere gorputzak egurrezko ate baten kontra jo zuan.

Ia-ia konorterik gabe, irtenbidearen aurrean nengoala konturatu nintzan. Zabu-zabuka atera nintzan kanpora. Eta, atzerantz begiratzean, Landotzeko arrizko dorrea ikusi nuan beti bezala.

Kotxeraiñoko bidea korrika eta zilipurdika egin nuan, bost kilometroak «rekord» denboran egiñez. Ez naiz geiago Landotzera joango, ez eta dorre batetan sartuko ere.



ABU SIMBEL

Arrian egindako eraikintza aundi ikusgarriak, eta benetan bikaiñak, asko dira Ejipto zaarreen. Edozeiñentzat oso ezagunak dira, noski, arrizko txuntxur edo piramide izugarriak, iru elkarren alboan. Baiña beste gauza asko dira ain arrigarri ta eder diranak. Bat aipatuko degu emen, Abu Simbel ize-nekoa, dagozk ion zeaztasun batzuk bertan emanaz.

Kristo baiño 1290-1224 urte leenago bizi izan zan Ramses II. Eta aren garaikoa da jauretxe edo jainkoak gurtzeko toki berezi au. Orain, beraz, guxtienez iru milla ta berreun urte ditu. Nilo ibaiaren alboan eta arkaitz bizian egiña da. Arkaitza 60 metro barrura zulatuta egiña danez, «hipogeo» esaten diote gerkeratik, au da, lurpeko jauretxea.

Baiña ortarako, arkaitz aundi bat goitik beera berdiñean ebaki ta antxe landuta daude lau irudi berdin-berdiñak: atea erdian eta alde bietara bina irudi bikain. Lauak eserita daude. Ramses erregea da lauetan. Bakoitza 20 metrokoa da lurretik bururaiño. Irudien belaunak baiño beerago gelditzen da ateburua. Arri gogorrean landuak diralako irauñ dute ain ederki gaur arte.



Ramses II. izeneko errege edo «faraon» zalakoa, 67 urtez izan zan agintari, Ejipto osoaren jaun eta jabe. Orregatik egin zituan alako eraikintza ikusgarriak eta ainbeste. Eta guztietan bein eta berriz jartzen zuan bere irudia, nun baiño nun aundiagoa gaiñera. Beste errialdeak menperatzeko gudaldirik aski egin eta irabazi ba zituan ere, jaso zituan eraikintza aundiak diralabide gertatzen da ezagunena ta gogoangarriena.

Abu Simbel deritzaion toki ontako jauretxeak izango dira, bear ba da, Ramses aundiak eraikitako aundienak, Luxor eta Karnak tokietakoak aaztu gabe. Trebetasun berezia bear izan zuten bai irudigilleek ta bai barrunbe osoa egin zutenek. Jauretxe edo jainkoentzakoa zanez, Amon eta Re-Harajte jainkoen eskeiñia da; baiña aldi berean bere buruari ere bai, Jainkoen irudiak baiño geiago bait dira Ramses aundiarenak: zortzi irudi daude barruan.

Sapaia edo gaiña datoreki apaindua dauka: sai edo putre izeneko egaztien irudiak dauzka, amar zutarri landuren gaiñean. Zutarri auek, berriz, Osiris jainkoaren irudi-antzeria landuak dira. Sarrerako lau irudi aundien tartetean eta oiñetan, beste irudi txiki asko daude: sendikoenak dira, noski. Barruan alde bietara ere irudi asko daude arkaitzean landuak, eta aietan Ramses aundiaren ekintzak eta garaipenak daude egoki zizelkatuta.

Abu Simbel toki ontako jauretxe nagusia beintzat eguzkiari begira ain egoki ta zeazki jarria dagoanez, egun osoan beti berdin argi egiten du eguzkiak barruko aretoetara.

Barrueneko areto bietan, erlijio-giroko irudiak ageri dira, beren jainkoekiko artu-emanetarako egokiak. Eta beste jainkoen artean, Ramses bera ere nolabait jainkoen kastako bihurturik daukate.

Jauretxe nagusiaren alboan urbil zegoan beste bat txikiagoa, Hathor jainkoari ta Ramses aundiaren emazte Nefertari ospetsuari eskeiñia. Sarrerako orman bertan zeuden amar irudi, bakoitza 10 metro aundikoak, Ramses eta Nefertari gogorazteko egiñak.

Nilo ibaiaren ondoan zeudela esan degu. Egin, ala egin zituzten. Gauzak asko aldatu dira gerora. Izan ere, Nilo ibaiak zekarren ura egoki erabilli aal izateko, urbildegi aundiak egin zituzten Sudan lurraldetik Ejipto zabalean sartzerakoan. Ezaguna da Asuan urbildegia. Lenengoa ingelesek eraiki zuten 1902 an. Baiña txikiegia gertatu zan.

Asuan urbildegia esanda ezagutzen deguna, 1960-1971 urteetan eraiki zuten errusitarren laguntzaz. Eguzkipeko aundiena izan zan aldi batean, neurri auen argira arritzekoa ez danez: eusteko ormatzarrak 111 metro ditu gora; alde batetik bestera 3,5 kilometro, eta oiñean kilometroko loditasuna. One-la, Nilo ibaian beeruntz doazen urak 500 kilometro luzeran pillatzen dira, gero urbildegitik argi-indarra ateratzeko ta lurra ureztatzekeo erabil ditza-ten. Geroztik ba da Ameriketa aldean bat edo beste aundiagorik.


Aipaturiko lurralde onek beste izen bat zuan antziña: Nubia. Eta inguru aietan bizi ziran nubiarrek, beste norabait toki-aldatu bearrean gertatu ziran, urbildegi aundia egiterakoan. Aldaketa mingarria izan zan, noski, beren lurraldetik irten bear ura, Iparrerago, Kawun Unbü aldean kokatzeko.

«Itoko dirala jainkoak!» karraxi larria zabaldu zuan UNESCO elkarte ezagunak. Izan ere, nubiarrek ez-ezik, Nilo ibaiaren ertzetako jauretxeak eta illobiak ere urpera bait zijoazen. Ejiptoarrak biziko ba ziran, bearrezkoa zan

urbildegia. Baiña zer egin eraikintza bikain aiei? Ez al ziran gizadi osoarentzat ondasun ederrak? Ala, munduko zenbait errialde aberats eta kulturazalek lagunduta, —beste garai betan Moises bezala— uretatik onik ateratzeko bideak egin zituzten.

Arkaitzak ebaki ta zatika leku-aldatu zituzten jauretze bikain aiek, batez ere aipaturiko biak. Uraren maillari dagokionez, leen baiño 64 metro gorago daude ta 180 metroz barnerago, au da legorrerago. Batetik, ormigoizko mendixko bat egin zuten eta aren barnean kokatu zituzten puskaka, leengo egitura bera emanaz. Aldaketa auk 1965-68 bitartean burutu zituzten, 42 milloi dolar txautuz lanean.





OLINPIADAK

Orain dala denbora asko, K.a. 776 urtetik asi eta gure aroko 393 urterarte, Grezian, lau urtetik bein kirol-leiaketa ospetsu bat egiten zuten. Grezitarren jaingo gorenari, Zeusi, eskaiñiak ziran, berak eman bait zizkien, tradizioak zionez, musika eta kirola, ausarki borrokatu eta askatasunean bizi zitezen.

Sakratua zan leiaketa auek jokatzen zituzten lekua.

Asiera batean iru egun irauten zuten leiaketek, eta bost egunera luzatu ziran gero. Gizonezkoen arteko leiaketak bakarrik izaten ziran. Emakumeek ezin zuten parte artu.

Olinpiadan txapeldun gertatzen zirenei erramu-koroia jartzen zieten buruan. Batzutan, iri bateko ordezkariak joko auetan irabazten zuanean, bere erriak ooretan irudi bat eraikitzen zion.

Olinpiar leiaketa jokatzen ari ziran bitartean, Greziako iri eta errien arteko burrukak eta etsaigoak amaitu egiten ziran.

Jokoek beeraka egin zuten eta 393garren urtean erabat debekatu zituan Teodosio I enperadoreak, leialtasunik gabeak zirala iduritu bait zitzaion.

Mende askoren ondoren, 1894garren urtean, kirol-eginkizunei jatorrizko atsa itzultzeko, erakunde bat sortu zuan Pierre de Coubertin baroiak. Atenasen izan ziran 1896an, gure egunetako leendabiziko Olinpiadar Jokoak.

Pierre de Coubertin jaunaren itzetan, jokoan elburua ez da garaipena lortzea, «parte artzeak du meritua» esan oi zuan.

Aren ustetan leialtasunak eta laguntasunak osatu bear dute edozein kirolen oiñarria.

ARRAUNKETA

Itsas-ontziak jendez gaiñezka
Donostiya'runtz goizetik,
etengabeko sarda luzean
legunki datoz nunaitik...

Gizonez danak josiak daude
itsaso eta mendia,
Euskalerrriak ospatzen bait du
arrantzale-jai aundia.

Mutil bikaiñak arraun banakin,
zarrena patroï dutela:
Irtera jo-zai urduri daude
egon-eziñik bezela.

Abi-aldiko zunpatekoa
lertu dalarik aidean,
lau traiñeruak tximistak artuz
an zeztik bat-batean!

— «Mutillak! ,
ekin!
Batera!
Berdin!
arraunak
arin!
Ori dek
Txomin!
Etzegok,
ezin!
onik gu
bezin
eguzki
azpin!!!»

— «Utzi txanpari!
Rau! Lasai jo!
Lasai mutillak...
lasaiago!»

— «Arraunak luza, eta
ez ain sarri bildu...
Gerri-laguntzarekin
zabal-zabal artu...!»

Arin dijoaz danak, kementsu,
bata bestien ondolik:
Donosti, Pasai, Ondarrabia...
Oriyo zerbait aurretik...

Barraz kanpora irten dirade
arrotuz itsas barea.
Alde bitatik Lurrun-ontziak
jarraituz oien bidea.

— «Biran gaituk, ta erne,
aneko ta buru...
beso-lanak moldatuz
tangaren inguru!

— «Aupa lenbaitlen,
aurrekalari!
Bejondeikela
Prantxisku-Mari!
Eskubikoak,
jo xarri-xarri,
autsi dezagun
pasaitar ori!

Egiñal erain
ezker-eskubi!
Bapo mutillak!
Ori dek ori!!!»

— «Lasai gazteak!
Jo batean!
Aurretik gaituk
ugardean.
Etsaiak mende
or atzean
zetozek, eta
ler eiñean».

Lurrun-ontziak jaupa ta txistu
alaitzen dute bazterra,
adieraziz beren poza ta
arraunlarien lasterra.

Gaztelupeko sarrera da, ta
ura traiñeru-gudua!
Orio, Pasai, Ondarrabia...
Donosti pixkat aitua...

Kaia-gaiñeko ixkanbilla ta
diru-ixtillu soiñua!
Batzuentzako inperua da,
besteentzako zerua...




Pia Gairi Zorzo

— «Sarreran gaituk...
Gu garaille!
Aizken-aldi au
grñaz bete!
Arraunak bildu,
ekin ortxe!
Egiñaletan
autsi arte!

— «Batean
asi!
arin da
bizi!
Arraunak
josi
urpean,
autsi!
Gu gaituk
nausi!!!

(TXIRULIRUKA Loidi'tar Paben)








A large, ornate, black-and-white calligraphic frame with flowing, curved lines that enclose the text. The frame has a 3D effect with a dark outer edge and a lighter inner curve.

AGUR



BULTZI-LEIOTIK

Oi, lur! Oi, lur!
Oi, ene lur nerea!...
Oi, goiz eme,
parre gozoz ernea!...

Arto musker,
mendi, baserri zaarrak;
ale gorriz
abaildutako sagarrak;

oro laino
mee batek estalia,
urrez oro
eguzkiak jantzia...

Nekazari,
gizandi bat iduri
soroan zut:
bejondeizula zuri!

Zure bazter,
gurazko aberria,
doa zoro
ta (bertan ni) bultzia...

Oi, ene lur,
baninduzu zerea,
zu landu, ta zure
sariz ase!...

Baiña... ezin:
beeko bear goriak
narama... Agur
soro, sagar, mendiak!...

(Lizardi'tar Xabier)